

AIARRALDE A hemen



OIER VELEZ, OKHER:
"Mundua nola dagoen ikusita, oihu egiteko beharra sortu zait berriro, eta raparekin ez nuen lortzen" 16-17 or.

IZASKUN ALONSO:
"Bizi ahal izateko espazioak sortzen saiatzen naiz pinturarekin" 20-21 or.



**BURUBIO
ELKARTEA,
IKUSI ARTE**

AMURRIO 4-5
"Borroka fase berri bat"
Tubos Reunidoseko enpleguaren defentsan
Iragan maiatzaren 15ean iragarri bezala, greba mugagabea eten dute Amurrioko lantegian

AIARA 11
Ehun enplegu sortzea aurreikusi dute Etorrik eta Lanak
Inauguratu dute azpiegitura berria, Imanol Pradales Lehendakaria gonbidatuta, besteak beste

KIROLA 22-23
Eskaladaren potentzial eraldatzailea aztergai Orbeo Etxean
Maria Francisca Mas Riera ikertzaile feministak ikerketa gidatu du Laudioko espazio autogestionatuan

LAUDIO 9
Gregorio Marañon itxi eta bertako zikloak institutura jaitziko dituzte
Udalak ohartarazi du Laudio Institutuko beheko eraikinak "espazio arazo nabarmenak" dituela dagoeneko

KULTURA 18
Urduñako museoak atek ireki ditu berriro, hiru hilabeteren ostean
Klimatizazio-lanak amaituta, erakusketa eta ekintza berriak hartuko ditu museoak datozen hilabeteetan

KIROLA 27
Hegoa Roiz aiararra garaile Zaramagako Pilota Txapelketa entzutetsuan
Amurrioko Pelotazale Elkarateak emaitza borobilak erdietsi ditu azken denboraldian

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

Garabi eta plataformen alokairua.

Makinen disponibilitate azkarra.



Arza II industrialdea, LAUDIO
946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net
www.enkarki.net · [f](#) [i](#) [x](#) [@enkarki](#)

AUTOEN KARTELAK - GAINKOSTU ERREKLAMAZIOAK

Ba
BABYLON
asesores

Landaburu 9
AMURRIO
678 55 86 36
www.babylonasesores.com

Sergio Tato



ABOKATUAK

2006-2013 bitartean
ibilgailu bat erosi bazenuen,
horren balioaren %10eko kalte-ordaina jaso ahalko zenuke

Erreportajea



ZUZENeko MUSIKAK LUBAKI BAT GALDU DU

Eskualdeko musikarien aterpea izan da Burubio Elkarte hamar urtez. Dozenaka talde igo dira bertako eszenatokira. Orain, behin betiko itxi ditu ateak. Makro-jaialdien zerrenda luzea puzten ari den garaiotan, harribitxi bat galdu du areto txikien lubakiak.



Testua eta argazkiak **Almar Gutierrez Bidarte**

Bukatu da. Behin betiko eten du bere ibilbidea Burubio Elkarteak. 2023tik arrastakaz eman ezintasunak bideraezin egin du proiektuaren etorkizuna. Arnasgune bat galdu du Aiaraldeko kultur sorkuntzak. Aterperik gabe geratu dira musikariak eta umezurtz zuzeneko musika gosez zirenak.

10 urteko ibilbidea

Elkartearen 10. urteurrenarekin egin du bat etenak. 2016an entsegu-lokalak bizirik man-

tentzeko asmoarekin sortu zen proiektua. La Kuadra etxearen desalojoaren ondotik, bertan entseatzeko zuten zenbait taldek Amurrioko Maskuribai industriaguneko pabiloi bateko getetan jarraitu zuten bidea. Talde bakoitza bere gelan, hariak eta jauzi kolektiboa eman zuten arte. Lokalake ekonomikoki bideragarri egin asmoz, pabiloia bere osotasunean alokatu eta eskaintza zabalago bat jarri zuten martxan. Musika-ikastaroak, zuzeneko kontzertuak edota grabaketa estudio zerbitzuak eskaintzearekin batera, ekin zion ibilbide publikoari Burubio Elkarte jaioberriak.

Urte luze hauetan berrogei talde baino gehiago igaro dira Burubioko entsegu-lokaletatik. Badira lehenengo egunetik azken egunera arte Burubion bildu diren proiektu musikalak; eta badira ere ibilbide efimeroagoa izan dutenak. Batzuk jendetsuagoak, beste batzuk solistak. Dozenaka kontzertu eskaini dituzten taldeak edota entsegu-lokaleko lau hormak sekula gainditu ez dituzten proiektuak.

Izate Faltsua, Nakkiga, Five Corners, Astarte, Uluka, Ikäara, Patx & Run, 4Bancos, Gwa Ya Reggae, Perdido Ente Ilusiones... asko dira Burubioko DNA daramaten taldeak. Adreiluen

artetik oholtzara jauzi egiten azkenekoetako bat Not hirukotea izan da.

Musikaren gotorleku

Tokiko taldeentzat bezain beste, Euskal Herriko puntako banda askorentzat ere aterpe izan da Burubio Elkarte. "Gertuko harremana eskaintzen diegu talde horiei guztiei, eta etxean bezala sentitzen dira hemen. Lokalean bezala egotea da eurentzat baina eszenatoki handi batetik probatu dezakete zuzeneko errepertorioa, argiak...", azaldu zioten bere garaian Aiaraldea Komunikabideari Burubioko lagunek. Zea Mays taldea da horren adi-

bide. Bilbotarrek Burubion prestatu zuten Adore Kemena Kuraia diskoa aurkezteko bira 2023an. Hainbat entsegu egin zituzten bertan, bai eta zuzeneko errepertorioa probatzeko kontzertua ere. Bira hartan Boiro, Berlin, Bartzelona edota Madril bezalako hiriak bisitatu zituzten, baina aireratzeko pista Amurriko izan zuten.

Pi.L.T. mungiarrek ere Burubion gotortu ziren itzulera bira abiatu aurretik. 2018an izan zen hori. Metal talde ezagunak 11 urteko etena hautsi eta Amurrioko aretoan prestatu zituen zuzenekoak, berriro ere jendaurrera agertu aurretik.

Kontzertu eskaintza oparoak egin zuen ezagun Burubio Euskal Herri luze zabalean. Hiri handietako aretoetatik haratago, musikaren mapan jarri zituzten Amurrio eta Aiaraldea. Dozenaka talde aritu dira toki-ko eszenatokian; Su Ta Gar, Willis Drumond, Anari, Niña Coyote eta Chico Tornado, Sara Zozaya, Liher, Nogen, Lukiek, Dupla... amaigabea da zerrenda.

Berri Txarrak taldeak bertan eskaini zuen Araban inoiz emango zuen azken kontzertua, 2019ko Ikusi Arte agur biraren barruan. Berriren sukarra puri-purian zegoen orduan, eta batek baino gehiagok ondo gogoratuko du sarrera lortzeko egin beharreko ilara luzea.

Kideak eta publikoa

Elkarteko bazkideei esker urratu du bidea Burubiok hamar urteko existentzian. Aretoa inauguratu eta urtebetera jarri zuten abian bazkideza kanpaina. 70 bazkide baino gehiagok osatu dute Burubio Elkarte, eta hauen ekarpen ekonomikoari esker biziraun du proiektuak orain arte. Elkartearikiko ekarpen horren truk bazkideek deskontuak jasotzen zituzten urte-

Dozenaka talde aritu dira Burubioko eszenatokian: **Su Ta Gar, Willis Drumond, Anari, Niña Coyote eta Chico Tornado, Sara Zozaya, Liher, Nogen, Lukiek, Dupla, Berri Txarrak...** amaigabea da zerrenda.

ko kontzertu guztietan. Bazkideen ondotik publikoa izan da Burubioren bihotza taupaka mantendu duena; makro-jaialdien garai betean geroz eta preziatuagoak aretoetako militante fidelak. Burubiotarrek ere nozitu behar izan zuten publikoaren beherakadaren joera orokortua; estadioak gainezka eta areto txikiak hutsik. “Zuzeneko musikaren eskaintza oso handia da, baina publiko falta dago, aretoak ez dira betetzen. Joera orokortua da areto guztietan publiko jaisten ari dela. Ohitura falta dago zuzeneko gozatzeko, kontsumo ereduak asko aldatu dira, eta plataforma digitalak dira orain nagusi”, aitortu zioten Aiaraldea Komunikabideari 7. urteurrenaren tes-tuinguruan.

Etena

Nekez bete daitezke aretoak zuzeneko musikariek ez dagoenean. Arestian aipatutako 7. urteurren betean jaso zuten Burubioko kideek kontzertuak egiteko debekua. Txosten tekniko baten aburuz, lokalak bigarren larrialdi-irteera baten beharra zuen jendaurreko ekitaldiak antolatu ahal izateko. Egoera ho-

ren aurrean kontzertuak etetea erabaki eta alternatiba bila hasi ziren. Denbora guzti honetan Amurrioko Udalarekin komunikazioa, ordea, “oso zaila” izan zela aitortu dute Burubioko kideek. 2025ean utzi zion elkar-teak udal-dirulaguntza jasotzeari. Entsegu-lokaletan bitzen ziren taldeek espazioaren kostu ekonomikoa euren bizkarrretan hartzea gehiegizkoa zela iritzita, Burubioren bidea amaitzat ematea erabaki zuten.

Burubio ostean, zer?

Hutsunea utzi du Burubio Elkarteak areto txikien itsaso txikian. Maskuribai industriaguneko espazioan batzen ziren hainbat talde eta musikariek Amurrioko Musikazale Elkartearen inguruan antolatzen hasi dira berriki, eta dagoeneko ehun sinadura baino gehiago bildu dituzte entsegu-lokal berrien alde. Ikusteke dago bide berri honek nora eramaten dituen Aiaraldeko sortzaile eta ikusleak.

Lubaki berriak behar ditu zuzeneko musikak, berandu baino lehen iritsiko da Burubioren lekukoa hartuko duen hurrengo katebigia, hala bedi.

Erreportajea



Sara Zozaya
MUSIKARIA

Bizitzaren onena kentzen jarraitzen badigute laster ez dugu jakingo bizitzen nola segi. Emandakoa, inork ezin du des-egin.



Galder Izagirre
MUSIKARIA ETA ARGAZKILARIA

Burubio bezelako leku bat ixten denean, Aiaraldean gainera, instrumentu bat desafinatzen da nonbait, soka bat puskatu, danbor makila labaindu, kablea mikrotik banandu.

Etxegabetze bat gehiagore kulturarentzat.

Etxe huts, bide huts.



Erreportajea

“BORROKA FASE BERRI BAT” TUBOS REUNIDOSEKO ENPLEGUAREN DEFENTZAN



Iragan maiatzaren 15ean iragarri bezala greba mugagabea eten dute Amurrioko Tubos Reunidos lantegian, hartzekodunen konkurtsoak “borroka fase berri bat” ireki duelako. Astelehenean itzuli ziren beharginak lanera, Maderas de Llodioko grebalarien txalo eta animo artean.



Testua **Aitor Aspuru Saez**
Argazkiak **Almar Gutierrez Bidarte**

Tubos Reunidoseko greba mugagabea eten dute, hartzekodunen konkurtsoak sortu duen egoera berriagatik.

Horrela proposatu zien lanuztea deitu zuen gehiengo sindikalak berak beharginei iragan maiatzaren 15ean egin zuten batzarraren. Bileraren osteko agerraldian ELA eta LABeko kideek hartu zuten hitza. Gehiengo sindikalak aldarrikatu zuen greba baliozkoa izan dela, enplegua erregulatzeko espedientea proposatzen zuena ez baitago onartua (altzairutegiaren itxiera eta logistikaren kanporaketa). Euren

ustez, horri argi berdea eman izan baliote, antzeko egoeran egongo lirarteke (hartzekodunen konkurtsoan), baina lantegian lanpostu ugari galduta.

Gauzak horrela, "agertoki berriak neurri berriak eskatzen dituelako", eten dute lanuztea. "Une bakoitzerako borroka tresna egokiak behar dira", argitu zuten ostiraleko prentsaurrekoan.

Abiatu berri den etapa berri honetan, oraindik ere, etenda dagoen enplegu espedientea betiko atzera botatzea da helburua eurentzat.

Grebaren balioa

Izan ere, sindikatuek azaldu dute bitartekari berria dagoela gatazkan eta hori administrari konkurtsala izango dela. Halaber,

erakunde publikoen gaineko presioa biderkatzeko ahalegina ere egingo dute. Eusko Jaurlaritzatik eta Arabako Foru Aldunditik hasita, garrantzitsua exijituko dute eta mobilizazioak eta bilerak antolatuko dituzte.

Planteamendu berri mugari garrantzitsua maiatzaren 26an epaitegian izango duten bilera izango da, non administrari konkurtsoak, zuzendaritzak eta langileak batuko diren. Egun horretan 24 orduko lanuztea egingo dute, langile orok parte har dezan Gasteizen deituko dute elkarretaratzean.

"Zuzendaritzak sortu du arazoa"

ELAk eta LABek azpimarratu zuten argi geratu dela Tubos Reunidoseko kudeaketa dela egungo

“Muturreko neurriak hartzera derrigortuta” ikusi du bere burua konpainia tubularrak; baina beti ere “langileen bizkar”

egoeraren arduraduna eta iturbura eta euren plana (enplegu espedientea, altzairutegiaren itxiera eta logistikaren kanporaketa) ez dela konponbidea eta ez dela ezta bideragarria izan.

Horrek, sindikatuen aburuz, ataka askoz larriagoan utzi du enpresa, "zuzendaritzaren jarduerak egiturazko arazo larriak" sortu ditu eta. Hain zuzen, enpresako jabeen eta kudeatzaileen ardura azpimarratu zuten ELA eta LABeko bozeramaileek asanbladaren atarian: "Dokumentazioan bertan enpresak ez du greba aipatu kaudimen gabeziaren arazo gisa".

Desadostasunak

Iragan maiatzaren 7an, hartzekodunen konkurtsoak sortutako

Erreportajea

iritzi aldaketa baino lehen, zuzendaritzatik gertu dauden zenbait beharginek deituta eta UGT eta CCOO sindikatuek babestuta, galdaketa egin zuten lantegian bertan grebari buruz.

Tubos Reunidoseko 232 langilek, gehienak bulegokoak, lanuztea bertan behera uztearen alde egin zuten. Hau da, beharginen laurden batek parte hartu zuen eta maiatzaren 12tik aurrera enpresak berak autobusak jarri zituen langile batzuk beharrera joateko.

Greba deitu eta bertan behera utzi duten sindikatuek, ordea, azpimarratu zuten erabakia ez dutela hartu maiatzaren 7ko galdaketaren ondorioz. Gehiengo sindikalak enpresaren kontakizuna indartzeko eta langileak zatitzeko estrategiatzat jo zuten gertatutakoa eta salatu zuten galdaketaren antolatzaileak ez direla langileen "ordezkari zilegiak" eta jarraitutako prozedura "ez zela gardena izan".

Maiatzaren 15eko asanbladaren ostean maiatzaren 7ko batzarrean parte hartu zuten zenbait kidek, "bozkatu nahi dugu" leloa zuten afixak erakutsiz, traba egin zioten gehiengo sindikalaren agerraldiari. Eztabaida eta tentsio une gutxi batzuk izan ziren bileraren bukaran, baina garrantzi gutxikoak.

Zorra eta Espainiako Gobernuak


Grebaren nondik norakoak hedabideen jopuntuan egon badira ere, lanuztea etenda, lehen lerroan geratuko da zuzendaritzaren kudeaketak sortutako 250 milioi euro baino gehiagoko zorra.

Zati handi bat Espainiako Gobernuari zor dio eta Carlos Cuerpo Ekonomia Ministroak aurreratu zuen konkurtsoak aurrera egin ahala erabakiko dutela zer egin enpresako lanpostuen bideragarritasuna bermatzeko.

Mobilizazioak

Greba mugagabea bertan behera uzteagatik ez diote mobilizatzeari utziko Tubos Reunidoseko langileek. Hain zuzen ere "lanpostuen defentsan borrokan jarraitzeko" asmo argia adierazi dute gaur. Bi dira epe laburrean dituzten hitzorduak: maiatzaren 26an Gasteizen mobilizatuko dira eta maiatzaren 28an, aldiz, Aiaraldeko Industria Garapenerako Mahaia- ren testuinguruan ere protesta egingo dutela aurreratu dute.

Astelehenean, hilaren 18an, itzuli ziren lanera Tubos Reunidoseko beharginak. Maderas de Llodio-ko langileak izan zituzten zain fabrikako sarreran, eta txalo, bengala eta suziri artean egin diete harrera.



Herriz herri

Artziniega

“Argi berresten dugu erasotzaile sexuak eta haien konplizeek ez dutela lekurik gure herrian”



Elkarretaratzea egin zuten Artziniegan iragan maiatzaren 17an. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Gizon bat zigortu du Amurrioko auzitegiko arlozibileko eta instrukzio atalak 2024ko urtarrian sexu eraso egiteagatik Artziniegan.

Apirilaren 29an argitaratu zuen epaia eta sei hilabeteko isuna ezarri diote erasotzaileari. Berrez, erabakia irmoa da, ez baitute helegiterik aurkeztu.

Mobilizazioa Artziniegan

Artziniegako Talde Feministak mobilizazioa egin zuen maiatzaren 17an, herrian gertatutako sexu-erasoak "erabateko irmotasunez" gaitzesteko.

Mobilizazioaren deitzaileek positiboki baloratu zuten sententzia hori, "urrats" bat dela uste baitute "indarkeria matxistaren zigorgabetasunaren aurrean". Hala ere, nabarmendu zuten epai batek ezin izango diola eraso jasandako emakumeari "eraginda-

ko mina osorik konpondu". Gauzak hala, premiazkotzat jo zuten "emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak salatzen, ikus-tarazten eta borrokatzen jarraitzea". Herriko feministez gain, beste hainbat eragilek sinatu zuten mobilizazioaren ostean plazaratutako komunitatua: Udalak, Amurrioko Emakumeon* Sareak, Laudioko Mugimendu Feministak, Aiaraldeko Gazte Feministak eta Aiaraldeko Mugimendu Feministak. "Babes, errespetu eta elkartzaren osoa" helarazi zioten eraso jasandako emakumeari "baita haren senideei eta inguruko pertsoneri ere", eta "erdigunean" jarri dituzte bere "duintasuna, prozesua eta indarkeriarik gabe bizitzeko duen eskubidea".

Era berean, argi utzi nahi izan zuten "erasotzaile sexuak eta haien konplizeek ez dutela tokirik herrian", eta Urduñako Otxo-maioetan gertatutako sexu erasoak ere salatu zituzten.

Urduña

Landa-eremuetan bizi diren gazte gehienek ez dute hirietan emantzipatu nahi, Eusko Jaurlaritzaren txosten baten arabera



Urduñan aurkeztu dituzte ikerlanaren emaitzak. **Irekia**

Testua
Maidier Ramirez Martin

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak eta Bitar-Bask Eusko Bitartekaritza Elkarteak *Emantzipazioa Begiratzeko* ikerketa lana osatu eta iragan maiatzaren 11n aurkeztu zuten Urduñan. EAEn landa-eremuan bizi diren gazteek emantzipatzeko dituzten baldintzak eta beharrak aztertzen ditu txostenak, "erakunde erantzunak udalerrien errealitate zehatzetik bideratzeko lan-oinarri bat eskaintzeko" helburuarekin.

Xedea hori izanik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zazpi eskualdetan egin dituzte galdeketa, elkarrizketak eta tailer presentzial zein dinamika parte hartzaileak, 18-34 urteko gazteekin eta baita eragile eta teknikariek ere. Egoeraren arabera ezberdintasunak gorabehera, hiru lurraldeetako gazteen emantzipazio prozesuan ezaugarri komunak atzeman dituzte, hala nola etxebizitza muga nagusia izatea, enplegua izatea nahikoa ez izatea, familiaren laguntzaren mendeotasuna eta autonomia eta proiektu propio baten desira.

Azpitarratzeko datuak

Zifra interesgarriak ere ekarri ditu txostenak. Esaterako, inkestatutako gazteen % 51,9k nahiago luke bere udalerrian emantzipatu, eta % 20,7k inguruan antzeko ezaugarriak dituzten herriak aukeratuko lituzke. Kontrara, soilik % 6,7k egingo luke hirira joatearen alde.

Sailaren arabera, landa-eremuko gazteek "bere lurraldearekin duten lotura" agerian uzten du horrek eta, beraz, sustraitzea politika publikoak diseinatzeko elementu garrantzitsutzat jotzen du. Datuok "emantzipazio-politiketan lurralde-ikuspegi txertatzeko dei gisa" irakurri behar direla adierazi zuen Nerea Melgosa sailburuak aurkezpenean, eta horretarako baldintzak egon behar direla ohar-tarazi zuen.

Izan ere, EAeko gazteen emantzipazioari buruzko datuak arduratzeko modukoak dira: gazteen % 31 baino ez dago emantzipaturik eta batez beste ia 30 urterekin lortzen dute hori egitea. Gazteen artean, hamarretik zazpi aitortzen du bizitza autonomoko proiektu bat izateko egiturazko arazoak daukela, eta hori are nabarmena-

goa da landa-eremuetan. Bertan, etxebizitza da oztupo nagusia, ikerketan parte hartu duten gazteen % 91,8k adierazi baitu ez dutela emantzipatzeko aukerarik.

Lortzen dutenen artean, familiaren laguntzak funtsezkoa izaten jarraitzen du, asko laguntzen baitie elkarrizketatuen erdiari baino gehiagori, eta dezentente %27,4ri. Dena den, ikerlanak dio emantzipazioa ezin litzatekeela familia bakoitzaren laguntza-gaitasunean oinarritu beharko, horrek desberdintasunak eragin baititzake.

Hirietako eta landa-eremuko errealitate eta baldintzak berdina ez direnez, "landa-eremuko gazteen emantzipazioari erakundearteko eta zeharkako ikuspegi batetik heltzeko beharra" defendatu du Melgosa, "Udalekin, Foru Aldundiekin, tokiko eragileekin eta landa-garapenarekin eta gazteriarekin lotutako erakundeekin lankidetzan".

Bide horretan, *Emantzipazioa Begira* diagnostikoa "gazteen emantzipazio-politiketan aurrera egiten jarraitzeko abiapuntu" izan daitekeela uste du Jaurlaritzak.

Arrankudiaga-Zollo

Arraunk the World azoka antolatu dute Arrankudiaga-Zolloko ikasleek

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Arraunk the World azoka antolatu dute Arrankudiaga Eskolako 3. zikloko ikasleek datorren maiatzaren 28an. Arrankudiaga-Zolloko plaza jardueraz beteko dute, 15:00etatik hasi eta 17:00ak arte: jatorri desberdinetako mokaduak, ikasleen eskulanak, bigarren eskuko azoka... Ikasleek Nerbioiko ur-jauzia bisitatzeko txangoa finantzatu nahi dute ekimenean bildutako diruarekin.

Arrankudiaga Eskolako Ariane eta Lucia 3. zikloko irakasleek

aletu dizkigute azokaren nondik norakoak. Ikastetxean proiektu-ka lan egiteko duten metodologia-ren barruan kokatu dute Arraunk the World azoka antolatzeko nahia. "Beti saiatzen gara egiten ditugun proiektuek ikasleentzako zentzu bat izatea eta helburu erreal bat edukitzea. Horrela, ikasleen motibazioa eta parte hartzea askoz handiagoa izaten baita", azaldu diote bi irakasleek Aiaraldea Komunikabideari.

Irakaspen integrala

Hain zuzen ere, *Ura eta itsasoa* eta *Jaiak eta janaria* izan dira Arranku-

diagako ikasleek ikasturte honetan landutako bi proiektuak: "Jaiak eta janaria" proiektua hastear zegoenean, eskola osorako jaialdi bat prestatzeko proposamena bota zuten ikasleek, jaialdi horretan gauza desberdinak saltzeko asmoarekin eta ateratako diruarekin irteera hori egiteko autobusa ordaindu ahal izateko. Beraz, ideia ona zela pentsatu genuen, gure lan guztiak helburu erreal bat baitzeukan".

Gauzak horrela, buru-belarri jarri ziren ikasleak maiatzaren 28ko azoka antolatzen. Irakaspen integrala izan da Arrankudiagako gaz-

teentzat. Izan ere, arlo desberdinak barneratu dituzte merkatua prestatzeko lanaetan: aurrekontuak irakurtzea, BEZa kalkulatzeko, ehuneko beharpenak ikastea, herrialdeen demografia, errezetak...

Ekintza bete azoka

Askotariko jarduerak egingo dituzte maiatzaren 28ko Arraunk the World azokan. Horrela zerrendatu dituzte eskolako irakasleek: "Musika egoteaz gainera, gure geletako jatorri aniztasuna aprobetxatuz, herrialde desberdinetako lau postu antolatu ditugu, hauetan herrialde ho-

rien informazioa eta errezeta gazi eta gozo bana egongo dira. Horretaz gainera, hainbat eskulan sortu ditugu: eskumuturrekoak, giltzarriak, oihalezko poltsak... Azkenik, bigarren eskuko gauzak jasotzen ari gara, herriko familiek ekarritakoak eta hauek salduko ditugu ere". Ikastetxeko lantaldearena ez ezik, guraso elkartearen, udaletxearen edota jai-batzordearen laguntza ere jaso dute ikasleek azoka antolatzerako orduan. Arrankudiaga Eskolatik herritar orori luzatu diote jaialdian parte hartzeko gonbita, ikasleek egindako "lan handia balioan jarritz".

BABESTUTAKO EDUKIA

Antzinako Andra Maria ikastetxeak bere LHko eskaintza zabaldu du

Urduñako Antzinako Andra Maria ikastetxeak garai berrietara eta gure inguruko beharretara egokitzen jarraitzen du. Hezkuntza-eta guztiak biltzen dituen ibilbide finkatuarekin —Haurreskolatik Batxilergora arte—, ikastetxeak urrats estrategiko bat eman du datorren ikasturterako Lanbide Heziketako (LH) eskaintza zabalduz, eta gure udalerrira eskualdeko prestakuntza-erreferente gisa sendotuz.

Duela hiru urte ezarritako Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapenerako (DAM) goi-mailako zikloaren arrakastaren ondoren, ikastetxeak bi herrikuntza nagusi dakartza datorren ikasturterako:

Erizaintzako Zainketa Laguntzaileen Erdi Mailako Zikloa: Osasungintza arloaren aldeko apustu sendoa, lan-eskari oso handia eta ukatu ezinezko bokazio-osagaia dituen sektorea.

Adimen Artifizialeko eta Big Datako Espezializazio Ikastaroa: Gaur egungo eraldaketa di-

Berrikuntza teknologikoa eta erizaintzako zainketak, erronka berria Urduñarentzat

gitalaren buru izateko informatika-tituludunei zuzendutako abangoardiako prestakuntza.

Bultzada eskualdeari

Hezkuntza-eskaintza berri honek gure gazteentzako etorkizuneko aukerak zabaltzeaz gain (gora eta behera bidaiatu beharrik gabe), inguruko gizarte- eta ekonomia-ehunaren eskariei zuzenean erantzuten die. Adimen Artifizialeko espezializazioak talentu teknologikoa udalerrian mantentzen du; osasun-arloak, berriz, gure komunitatearen zainketarako eta ongizaterako ezinbestekoak izango diren profesionalak prestatuko ditu, gero eta beharrezkoagoa den zutabea.

Profesionalak hezten

Hala ere, ikasketa-planez eta laneratzeaz harago, Antzinako Andra Maria ikastetxearen benetako motorra bere nortasuna izaten jarraitzen du.

Ikastetxearen helburua ez da teknikari bikainak titulatzeko



soilik, pertsona osoak hezteko baizik. Sendo sinesten dugu gaitasun tekniko eta teknologikoak balioetan oinarritutako hezkuntza sendo batekin batera joan behar duela beti: enpatia, ahalegina, erantzukizuna eta gainerakoekiko konpromisoa dira edozein lanbideren benetako oinarria.

Zabalkuntza honekin, ikastetxeak Urduñaren garapenerako konpromisoa berresten du, kalitatezko hezkuntza eskainiz, ingurunean errotua eta begirada etorkizuneari jarritako. Datorren ikasturterako informazioa eskuragarri dago dagoeneko ikastetxeko idazkaritzan.

Herriz herri

Areta

Aretako Kultur Etxea, burokraziaren labirintoan irtenbide bila

Aretako Kultur Etxea tokiko eragile kultural erabakigarria da eta 2019tik saiatzen ari da bere egoera erregularizatzen. Baina ia zazpi urte eman ditu erduan asmatu gabe, Laudioko Udaleko burokrazian harrapatuta eta, bereziki, tekniarien desadostasunetan, euren ustez.

Testua

Aitor Aspuru Saez

Aretako Kultur Etxea inguruko eragile kultural eta sozial oso garrantzitsua da. "Egunero jardueraren bat daukagu, izan ikastaroak, bilerak... eta ez bakarrik aretarrentzat, inguruko herrietako jendeak ere erabiltzen baitu" adierazi dute dinamizatzen duten bi kidek, Urtzi Garaik eta Maria Jesus Mardoze.

Dena den, proiektua impasse batean dago sartuta eta bere arduradunei luzeegia iruditzen zaie. "2019an taberna kudeatzen zutenek utzi zutenean, erabaki genuen bazela garaia Kultur Etxearen egoera erregularizatzeko, ez baitzegoen argi zein zen bere estatus legala", azaldu dute.

Lehenik eta behin, higiezinarren jabegoa argitu eta Udalarena bilakatzea izan zen helburua. Gero etorri zen askatzen asmatu ez duten korapiloa: erabilera erdua zehaztea eta ezartzea.



Aretako Kultur Etxeak taberna irekita egotea behar duela aldarrikatzen dute bere erabiltzaileek, zerbitzariak atezain lanak bete ditzaten. Aiaraldea.eus

Konpondu gabeko traba

Tarte luze horretan, 2023ra arte ez zuten lortu espazio kulturalaren behin-behineko lagapen kontratua sinatzea Udalarekin, baina dokumentu horrek ez du konponzen dagoen arazo nagusia.

Izan ere, egunerokoa kudeatzen duten herritarrek topatzen duten oztopo handiena da atezain lanak beteko dituen norbait izatea: "Guk ez dugu kobratzen Aretako Kultur Etxearen jarduerak bideratzeko eta dauden behar ugari erantzun behar diegu. Jendeak edozein unean deitzen digu gela bat hartzeko eta dauden ikastaroekin eta ekintzekin koordinatu behar dugu. Horrez gain, giltzen eta ateen irekiera eta itxiera ere gure gain hartu behar dugu".

Arao hori bideratzeko, hain zuzen, aretarrek eskatzen dute taberna funtzionamenduan egotea, 2019ra arte bezala. "Guretzat tabernaren garrantzia ez da, berez, barra irekita egotea, baizik eta tabernariak atezain lanak betetzea.

Aretako Kultur Etxea hemengo bizitza soziala hauspotu eta biziberritzeko ezinbesteko tresna da", nabarmendu dute.

Eta hor agertu dira traba gehienak, tabernak ez zuelako lizentzia ezta legeak ezartzen dituen baldintzak: komun eta sarrera irisgarria, sukaldea...

Prozesu horretan mugarririk garrantzitsuak aldatu behar izan dituzte. Esaterako, sukaldea egokitzeko lanak 2024an abiatu behar zituzten; baina, esleipena egitear zue delarik, konturatu ziren erreserbatutako dirua ez zegoela jadanik eta partida berria gaitu behar izan zuen Udalak. Ondorioz, 2025eko azaroan ekin zieten obra horiei.

Desadostasunak

Araoak arazo eta nahi baino beranduago ere, tabernaren afera bideratzen ari zela zirudien, baina orduetik hona agertu zaien horma nola gaingidituko duten ez dago

argi oraindik. Izan ere, bi aukera posible zeuden mahai gainean. Alde batetik, Kultur Etxearen lagapen kontratua egitea edo esleipen publikoa deitzea.

Urte hauetan aztertu den irteera da aretarrei lagapen kontratua egitea, baina horretarako txosten teknikoak behar dute, zeinak agerian utzi behar du taberna zerbitzuaren beharra proiektuak aurrera egin dezan.

Norabide horretan urratsak egin ostean, azken hilabeteetan Udalaren zerbitzu tekniko eta juridikoek adierazi dute zenbait egoera ematen direla, araudiari dagokionez, ez dutenak argi uzten erakundeak berak proposatutakoa egokia den edo ez.

Azkenean, apirilean udal gobernu taldeak konpromisoa hartu zuen lagapen kontratuaren alde egiteko, behin-behinean eta teknikariak aipatutako egoera horiek konponduko dituen akordioa lortu arte.

"Guri berdin digu, modu batean zein bestean irekitzea taberna, baina ahalik eta lasterren egitea behar dugu, gainezka baitaude jadanik. Diru eta indar inbertsio handia egin dugu auzolanetan eta eguneroko jarduerak antolatzen eta erritmo hau ez da jasagarria elkarte batentzat, uste dugu herritarrok erakundeek baino ahalagin handiagoa egiten ari garela", adierazi dute Kultur Etxeko kideek. Ondorioz, maiatzeko udalbatzara eramango dute gaia, prozedura arintzeko asmoz.

Udalaren aitortza

Bere aldetik, Laudioko Udal gobernu taldeak gorai patu nahi izan du Kultur Etxean egiten den lana: "Aretako batzordeak egiten duen lana balioan jarri nahi dugu, gaur egun Kultura Etxea Aretako bihotza da. Azken bi urteetan, Kultura Etxeak behar zituen aldaketak burutzea gure erronka handi bat izan da, espazio duin bat

merezi dutelako herritarrek. Bidean hainbat zailtasun aurkitu ditugu, baina Aretako komunitatearen etengabeko konpromisoari eta irmotasunari esker, une gogorenetan ere aurrera egiten jarraitu dute. Denbora lerro berean, hitzarmen berri bat lantzen egon gara batzordearekin elkarlanean, haiek baitira Aretako errealitatea hobekien ezagutzen dutenak eta lehen lerroan daudenak".

Halaber, Udala baikor agertu da eta espero du hurrengo asteetan egoera bideratzea: "Hainbat tira-bira izan ostean kontu burokratikoak direla eta, proposamen bat izatea lortu berri dugu. Oraindik ez da tokiko gobernu batzordean onartu, baina aste hauetako kontua da. Hemendik, haien lana erraztu nahi dugu eta horretarako kudeaketa ahalbide-tzea beharrezkoa da. Eta horrela, pausoz pauso eta elkarri eutsiz, bidea egiten jarraitzea gure konpromisoa da".

Laudio

Olatu urdina bularreko minbizi metastasikoaren aurka

Gaixotasuna ikertzen jarraitzeko beharra aldarrikatu zuten. **Ugarteko Gazteak**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ehunka lagun bildu ziren maiatzaren 18an Laudioko bularreko minbizi metastasikoaren aurka ibilbide solidarioan. Aldai plazaratik abiatu ziren eta herriko kale eta auzo ugari zeharkatu zituzten, Ugarteko plazan amaitzeko.

Maitetabizi elkarteari eman diotzen emateekin bildutako dirua.

Talde horretako kide batek hartu zuen hitza ekimenaren hasieran. Hiru ideia plazaratu zituen lehenbizi: bularreko minbizi metastasikoa "isilarazi" egiten da, sendagaitza da gaur egun eta "ikerketak beharrezkoak direlako botika berriak lortu eta bizirautea handitzeko".

Hasiera ekitaldian gogora ekarri zituzten baita "ez dauden kide guztiak" eta Itxaso eta Maribeli egin

zieten aipamen berezia. "Zuen ize-nak ozenki entzuten dira gaur eta zuen oroitzapena gutariko bakoitzean dago eta beti egongo da", nabarmendu zuten.

Horrez gain, eskerrak eman zizkieten ekimena antolatu duten kideei, Udalari, Ugarteko Gazteak taldeari eta Institutuko batxilergo artistikoki ikasleei, "aurten eurak izan direlako kamisetan diseinua egin dutenak".

Gregorio Marañon itxi eta bertako zikloak institutura jaitsiko dituzte

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Gregorio Marañon ikastetxe-ko eraikina itxi eta bertako gelak herriguneko institutura mugituko ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Hala jakinarazi du Udalak, eta kezka adierazi du erabaki horren aurrean. Izan ere, heziketa zikloak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen gelak daude gaur gaurkoz Isasi auzoko azpiegiturretan, eta tokiko erakundeak uste du erabakia "herriko hezkuntza komunitate osoan" nabarrituko dela.

Gauzak hala, udal ordezkariak "ezinbestekotzat" jo dute "prozesu osoa gardentasunez, informazio argiarekin eta inplikaturako familia, irakasle eta hezkuntza

komunitate osoaren parte-hartzearekin" egitea.

Izan ere, uste dute "gaur gaurkoz" ez dela "behar adinako azalpenik" eman, "ezta neurri horrek izango dituen ondorio pedagogiko, logistiko eta emozionalen inguruko informazio zehatzik ere".

Horrekin batera, Udalak ohartarazi du Laudio Institutuko beheko eraikinak "espazio arazo nabarmenak" dituela dagoeneko, "eta egoera hori arintzeko barrakoiak erabili behar izan dira azken ikasturtean". Horregatik plazaratu dute kezka ikasle gehiago eraikin berean kokatzeko asmoen inguruan. "Ahalik eta erantzun azkarrena eta arduratsuen" ematea eskatu diote Hezkuntza Sailari, "egoera honek sortu duen kezkari erantzuteko".

BABESTUTAKO EDUKIA

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

"Teoria eta praktika uztartzea oso lagungarria da"

EKAIN GUTIERREZ LEHEN HEZKUNTZA GRADUKO IKASLEA DA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN. IKASKETA ESPERIENTZIAZ ETA METODOLOGIAZ MINTZATU DA.

Lehen Hezkuntza graduko 3. mailan zaude. Zergatik aukeratu zenuen gradu hau? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Txikitatik gustatu izan zait haurrekin lan egitea, eta horregatik aukeratu nuen gradu hau. Mondragon Unibertsitatea hautatu nuen, erabiltzen duen metodologia interesgarria delako: ikaskuntza praktikoa eta talde-lana lantzen dira, eta horrek etorkizuneko irakasle gisa prestatzen laguntzen du.

Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?

Oso ona izan da. Irakasleekin harreman ona dugu eta laguntzeko prest daude. Ikaskideen artean giro ona dago, eta talde-lanak egunerokoa errazten du.

Nola definituko zenuke jasotzen duzun metodologia?

Dinamikoa eta praktikoa da. Talde-lanean eta proiektuetan oi-

narritzen da, edukiak modu aktiboan lantzeko eta egoera erreale-tara hurbiltzeko. Teoria eta praktika uztartzea oso lagungarria da.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Taldean lan egiteko aukera eta urtero praktikak egitea. Horri esker, ikasitakoa ikastetxeetan aplikatu eta esperientzia hartzen dugu.

Praktikarik egin duzu? Nola-koak izan dira?

Bai, eta oso esperientzia ona izan da. Ikastetxe bateko egunerokoa bertatik bertara ezagutzeko eta irakasleen lana ulertzeko balio dute.

Zer ekarpen egin dizu praktikak egiteak?

Irakaslearen papera hobeto ulertzen lagundu dit, eta ikasgelako egoerak kudeatzen ikasi dut. Irakasleekin harreman zuzena izateak motibazioa handitu dit.



Etorkizunari begira zeintzuk dira zure asmoak?

Lehen Hezkuntzako irakaslea izan nahi dut, bereziki Gorputz Hezkuntzan. Euskaraz irakatsi eta ikasleen artean kirola eta bizimodu osasuntsua sustatu nahi ditut.

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak

Utzi zure
errenta **25**
profesionalen
eskuetan

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Errenta-aitorpenaren plangintza
gurekin egin ezazu.

20 urte baino gehiagoko esperientzia

Herriz herri

Amurrio

Lucio del Alamo eta Matias Landaburuko ikasleak ere deitu dituzte Mendiko Eskolaren 55. urteurrena ospatzera

Testua
Aitor Aspuru Saez

Mendiko Eskolak 55 urte bete ditu aurten eta hezkuntza zentroko arduradunek hamarkada hauetan egindako ibilbidea gogoratu eta gorai patu nahi dute ekainaren 6an ospatuko duten jaiarekin. Komunitate osoa batu nahi dute egun horretan (ikasle eta irakasle ohiak, familiak...) eta gogoratu ikastetxearen historia 1970ean hasizela: "Garai hartan "La Comarcal" izenez ezagutzen zen eskola. Ordutik hona, eskola hazi, eraldatu eta egokitzen joan da, Amurrioko eta Aiaraldeko errealitatearekin

batera. Euskara, hezkuntza publikoa, inklusioa eta komunitatea izan dira beti gure ardatzetako batzuk, eta belaunaldi askoren bizitzaren parte izateko aukera izan dugu".

Horrez gain, Mendiko Eskolak beste proiektu batzuk barnebiltzen dituela ere azpimarratu dute: "Lucas Rey, Lucio del Alamo eta Matias Landaburu bezalako ikastetxeen ibilbidea ere gure historiaren parte da. Izenak, eraikinak eta egiturak aldatuz joan diren arren, belaunaldiz belaunaldi mantendu dena komunitatea bera izan da. Bide horren gutziaren ondorioz, 2020an hartu zuen ofizialki Mendiko Eskola izena".

Aiaraldea

Errolda soziala ezartzeko protokoloa abian jarri dute Laudion eta Artziniegan



Errolda sozialaren aldeko kartel bat, Laudio Udalaren aurrean. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Martxan dago errolda soziala aplikatzeko protokoloa Laudio eta Artziniegan. Hala jakinarazi dute bi Udalek gaur bidalitako prentsa ohar baten bidez. Azaldu dutenez, "otsailean elkarrekin hasitako bide baten emaitza" izan da, "Aiaraldeko pertsona zaurgarrien egoera eta kaleko egoeran dauden pertsonen arreta emateko estrategia aztertuta". Izan ere, nabarmendu dutenez, eskualdean geroz eta gehiago dira "kalean edo infraetxean" bizi diren pertsonak, eta egoera horiei bide emateko osatu dute protokoloa.

Otsailaren 17an plazaratu zuten Laudio, Artziniega eta Aiarako Udalek errolda soziala aktibatze asmoa. Aiaraldeko Kuadrillara eraman zuten gaia, eta horren ostean erabaki dute lehen bi udalerriek urratsa ematea. Aiarako Udalak, aldiz, beranduago aktibatuko du, Aiaraldea Komunikabideak jakin izan duenez.

Proiektu pilotua

Bi Udalek jakinarazi dute Kuadrillan gaiari buruz izandako bileran beste gauza bat ere onartu zela: proiektu pilotu bat garatzea Aiaraldeko pertsona zaurgarrien errealitatea

aztertze eta egoerari egokitu-tako konponbideak proposatzeko. Zehaztu dutenez, kaleko gizarte hezitzaileen bidez garatuko dute egitasmo hori, eta 4.000 euroko partida bideratuko dute horretara. Dena dela, partida hori handitzeko asmoa plazaratu dute bi Udalek, Kuadrillaren aurtengo aurrekontu-negoziazioen bidez.

Bi tokiko erakundeek gogorarazi dute ekimen hau "Arabako Gizarte Politiketako Sailak emandako erantzunaren ondoren" planteatu zela. "Izan ere, Sailak adierazi zuen ados zegoela helarazitako azterketarekin eta proposamenekin, baina baliabiderik eskaintzen ez zuenez, aurrera egin behar dela uste da", argudiatu dute. Horregatik erabaki dute eskualdetik "urratsak" ematen hastea, "autonomia eta gizarteratzea sustatzeko", egoera "gero eta gordina-go" dela ohartarazita.

Soka luzea

Soka luzea ekarri du errolda sozialaren gaiak azken hilabeteetan. Arestian aipatu bezala, otsailean plazaratu zuten EH Bilduk gobernatutako hiru Udalek errolda soziala aktibatze asmoa. EAJk, bere aldetik, "ke-gortina" gisa definitu zuen asmo hori, "okupazioari eta segurtasunari buruzko ez-

tabaida saihesteko". Dena dela, Amurrioko Udalak errolda soziala aktibatze asmoa bat proposatu zion Aiaraldeko Kuadrillari apirilean.

Erakunde publikoetatik harago, errolda sozialaren "berehalako" aktibazioa eskatzeko sinadura bilketa abiatu zuen Ondo Etorri elkarteak martxoan. Eragile horren hitzetan, Udalak "legez daude derrigortuta" udalerrian bizi diren pertsona guztiak erroldatzea, "oinarrizko eta funtsezko eskubidea baita, baita pertsonen etxebizitza finikorik ez duten kasuetan ere".

Gainera, ohartarazi dutenez, errolda sozialaren eskararak badu harremana Espainiako gobernuak abiatutako migratzaileen ezohiko erregulazio prozesuarekin. Prozesu horretara batzeko bi baldintza nagusi bete behar dira: Espainiako estatuan iaztik behintzat egotea eta eskaera egiten den unean bost hilabete eramatea bertan modu jarraituan bizitzeko, aurrekari penalik ez izatearekin batera.

Guzak hala, erroldatuta egotea ezinbesteko baldintza ez den arren, Ondo Etorriko kideek uste dute "bizileku jarraitua egiazteko ezintasuna beste oztopo bat izan daitekeela" aipatutako baldintza horiek betetzen direla frogatzerako orduan.

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIAK BANATZAILEA BEHAR DU



Aiaraldea Hemen hamaboskariaren zein udal aldizkariaren banatzaile izan nahi duzu?

- %33ko lanaldia, astean 13 ordu
- Curriculumak bidaltzeko epemuga: **maiatzak 26**
- Laneratzea: ekainak 3

Zalantzatarako,
lanpoltsa@aiaraldea.eus helbidera idatzi edo
946 56 85 54 telefono zenbakira deitu.

Aiara

Ekoizpena hirukoiztu eta ehun enplegu sortzea aurreikusi dute Etorkik eta Lanak Murgan



Azpiegitura berria bisitatu du Lehendakariak. Irekia

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Instalazio berria inauguratu zuten Etorkik eta Lanak iragan maiatzaren 11n Murgan, bertan duten lantegiaren alboan. 95.000 metro koadroko azpiegitura berri horrekin, 80.000 metro kubiko egur ekoiztetik 300.000 produzitzera pasako dira urteko, hirukoitza, alegia.

Modu horretan, "Europa hegoaldeko zerrategi handiena eta eraginkorrena" izatea espero dute.

Horrez gain, 100 enplegu sortzea ere aurreikusi dute, EFE agentziak azaldu duenez.

Mondragon Kooperatiban integratutako bi enpresa dira Etorki eta Lana, eta iragan apirilean fusionatu ziren. Lau urte baliatu dituzte proiektua gauzatzeko, 67 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eginda.

Inaugurazioan nabarmendu dutenez, 12,8 milioi Jaurlaritzak

Maiatzaren 11n inauguratu zuten azpiegitura berria, **Imanol Pradales Lehendakaria, gonbidatuta, bestek beste.**

jarri ditu Handitu eta Handitu Egurra programen bidez, "enpresaren lehiakortasuna eta inguruan duen eragina indartzen laguntzeko".

Lehendakariaren hitzartzea

Imanol Pradales Lehendakariak, Amaia Barredo sailburuak eta Ramiro Gonzalez Ahal-dun Nagusiak parte hartu zuten inaugurazio ekitaldian, Pruden Otegi Aiara alkatearekin batera. Lehendakariak hartu zuen hitza bertan, eta gogorarazi zuen azken urtean hiru aldiz bisitatu duela eskualdea "hiru inbertsio garrantzitsuren berri" emateko: Vidralarena, Harscorena eta gaurkoa.

Gauzak hala, Aiaraldeak "etorkizuna" duela defendatu du lehendakariak, eta aitortu zuen espero duela laster "inbertsio berriekin" bertaratu ahal izatea. "Guztiok lan egiten badugu ziur nago horrela izango dela", azpimarratu zuen.

Zirkuaren unibertso euskaldun bilakatuko da Aiara ekaineko lehen asteburuan

Testua
Maidier Ramirez Martin

Zirku txikia Ibagueneko futbol zelaira helduko da ekainaren 6 eta 7an. Taupa Euskaltzaleen Mugimenduaren Eusfera ekimenaren barruko ekintza izango da, Hogeitalau elkartearekin elkarlanean antolatutakoa. Bi egunetarako jarduera anitzak antolatu dituzte, betiere zirkuaren unibertsoarekin lotutakoak: magia eta antzerki tailer-rrak, malabareak, aurpegi margoketa, ikuskizunak... Tailerretan izena eman beharra dago eta online inprimaki bat bete behar da horretarako.

Maiatzaren 7tik 17ra, Euskal He-

rri osoko herri ugarian egingo dituzte Eusferarekin lotutako ekintzak. Euspazioak, beraz, herriko haurren eta gurasoen elkarguneak izango dira, eta herri bakoitzean modu ezberdinean ezaugarrituko badira ere, hiru elementu partekatzen dituzte: haur eta gurasoei bideratuta daude, parte hartze aktibo sustatzen dute eta euskara dute ekimenaren erdigunean.

Hogeitalau euskara elkarteak Taupak proposatuko ekintzekin bat egin du eta adierazi du Aiaran "aurrerapausoak ematen" jarraitu nahi dutela "aisialdia, kultura kontsumoa, erreferenteak, kirola, etxeko hizkuntza praktikak... euskaldunagoak izan daitezen".

araba euskaraz '26
Taupadak berpiztu!

ARABA EUSKARAZ DENDAK

Iturralde
kalea 3,
AMURRIO

Astelehenetik
ostiralera
10:30-13:00
17:00-19:30

Larunbatetan
10:30-13:00

arabaeuskaraz.eus

Iritzia

Andoni Armentia, apaiz eredugarria



Bittor Arbizu

Eskatu didate zerbait idaztea Andoniri buruz, eta esan dezakedana zera da, erraz eta laburdurik esan daitena, gizon sendoa zela jaio zen lurra bezala, Arabako Mendialdea, Apellaniz hain zuzen ere, baina BIHOTZ HANDI-HANDIKO PERTSONA, handiegikoa edo. Hain ona zen, ze kasuren batean bere borontate onaz abusatzen baitzen.

Beti zegoen prest guztiei laguntzeko, bereiztu gabe erlijio edo politika sinismenik. Bere helburua guztiei laguntzea zen, batez ere zaurgarrienei, eta horrek egiten zuen eredugarria.

Berarekin harreman estuak izan baino lehen, Aiarako lagunek asko eta ondo hitz egiten zuten hari buruz, edozein kultura ekintzetan, nahiz bestelakotan, eragilea eta bultzatzailea baitzen.

Andoni apaiza baino gehiago izan zen: euskara irakaslea, akordiolaria, abesbatza zuzendaria, ekintzen antolatzailea, lehengo apaiz-langiletako bat (bertako Egur Zerra batean)... beste moduko zeregin batzuk ere egin zituen, kontselaria, psikologoa, bitartekaria... den-dena jendeari laguntzeko, batez ere behartsuenei.

2000. urtetik aurrera zazpi bat urte egin nituen Okondon lanean, jende aurretiko lana, zeina herri txikietan nahiko familiarra eta hurbila egiten dena.

Herri txikiek xarma berezia dute, natura, lasaitasuna, familia arteko giroa... baina askotan gauzak intentsitatez bizitzen dira, onerako zein txarrerako. Dena den, elkartasuna izaten da nagusi.

Baina beste aldetik, herri txikiek beren mugak dituzte, batez ere, adinez nagusi direnentzat, beste herri handiago batera, Laudiora esaterako, joan behar denean izapideren bat egiteko -alarguntza dela, edo antzekoren bat dela-, alde batetik zailtasunagatik, zein bidaiatzeagatik. Gauza hauek sarri suertatzen ziren, eta hor zegoen Andoni adore emateko behar zuenari eta bide batez tramiteak egiten laguntzeko. Lan izugarri baliotsua zen pertsonaren bat arlo guztietan ahul zegoenean.

Laudioko Gizarte Segurantzza lan egin duen lagun adeitsu eta laguntzaile -horrela hitz egiten dute berari buruz- bati, Patro Gili, eman nionean Andoniren heriotzaren berri, kontatu zidan sarri joaten zela berarengana eta inoiz okondoar batekin joan zenean,



Andonik esan zion okondoarrari "Hau da laguntzen gaituena gauzak egiterakoan" -Patrori buruz-.

Okondoko apaiz-etxea behar zuen pertsona bati utzi zion, eta horrela gauza guztiekin. Behin diru bat zuen autoaren konponketa ordaintzeko, eta eskatu ziotenean, eman zuen, konponketa ordaintzeko diru barik geratuz. Janaria behar zuenari ere errazten zion.

Esan dudanagatik, batzuetan behar zuenari laguntzeko elkar egiten genuen, eta hortik sortu zen gure arteko adiskidantza. Zuhatzako Alava-Zurimendi familiako alaba batek esan berri didanez: "Elkarrekin maitasun handiko ibilbidea egin duzue". Familia horretako baserria izan da Andoniren benetako etxea, etxe beroa... bertan egona naiz batzuetan, etxeko eta betiko beroan.

Sentibera zen. Behin gertatu zen ezbeharra Okondon, zeren baserri baten sutearen ondorioz Sagardui familia hiru kide hil baitziren. Andonirekin hitz egin nuen telefonoz, eta esan zidan mahaiaren aurrean zegoela zer esanik/idatzirik ez zekiela, hunkituta. Idatzitako bertso batzuk bidali nizkion eta elizkizunetan irakurri zituen.

Gasteizko lankide batek komentatu zidan itxaron egin zuela Andoni kartzelatik irten arte, hura eta emaztegaia ezkontzeko. Ez zuen askorik hitz egiten kartzelaz. Behin esan zidan behin eta berriz jotzen ziotela buruan ahultzeko, baina berak bere buruari esaten zion: "Jo, baina ez nauzue hondatuko/menperatuko". Gorputzaren beste atal bat betiko kaltetu zutela, kolpeen ondorioz ere esan zidan. Gauza hauek hurbil-hurbilekoei ere kontatu zizkien. 1975. urtearen aldean gertatu omen zen, esan didatenez.

Aiaraldeak Andoniren omenezko artikuluan ere aipatzen du torturarena, hurbilek gauza bera diotela.

Azken urteetan Gasteizera joan zenean, bitan edo deitu nion, bisitatzeko ere asmoa nuela. Bertan beste abesbatza bat antolatu zuen, oztopoei aurre eginez.

Bere aldeko hileta elizkizuna Zuhatzan espero bezala ezin jendetsuagoa izan zen, herritarrek asko maite zutelako. Gerizpe handiko haritz handia joan zaigu. Hil zeneko egunean okondoar baten hitzek laburbiltzen dute bere ibilbidea: "Asko maite zitzaion, zuen gutzia ematen baizion behar zuenari".



INTSEKTUAK, GUGGENHEIM ETA GREENWASHINGA

Irene Barañano

Intsektuak esplotatu dituen erakusketa bat izan berri da Bilboko Guggenheim museoan. Iberdrolarekin elkarlanean, klima larrialdia eta naturaren zaintza aitzaki hartuta, museoak 48 artistaren lana hartu du, naturako hainbat elementu omendu dituztenak. Obra batzuek, baina, izaki bizidunak dituzte gatibu, zenbait espezieetako hainbat intsektu, hain zuzen ere.

Animaliatxo horiek museoaren gainontzeko aretoetara ez heltzeko, kontrol neurri zorrotzak jarri dituzte “izurriak kontrolatzeko enpresa” batekin, eta euren ugalketa galarazteko bezain oxigeno maila baxuetan mantentzen dituzte, anoxia egoeran.

Ez da Guggenheim museoak gizakiaz besteko animaliak, arte garaikidearen izenean, esplotatzen dituen lehen aldia. New Yorken, 2008an, hainbat erakusketa kendu zituzten gizartearen presioari esker. Obretako bat aipatzean, bideo batean erakusten zuten zelan artista batek hainbat pitbull bikote aurrez aurre kokatu zituen korrika egiteko makinei lotuta, elkarri eraso egin nahi eta ezin, erabat jota. 2012an, Maurizio Cattelanen disekatutako zaldi batez osatutako “obra” ere kendu zuten. Bilbora etorrira, 2018an, 2008an New Yorken antolatutako erakusketa bera gure lurraldean dagoen museora heldu zenean, AEBn zentsuratutako lan batzuk mantendu zituzten, besteak beste, hainbat narrasti espezie terrarioetan gatibatu eta elkar jaten zuten erakusten zuen bat.

Museo hori ez da artearen izenean animaliak esplotatu dituen erakunde bakarra. Wim Delvoye artista ezaguna da txerriak tatuatzeagatik; txerriak hiltzean, euren azala garesti saltzen du. Nina Beierrek erakusketak egin izan ditu katu eta txakurrekin, horiek mugitu ezin diren performantzeetan egoera behartuta. 2007an, Managuako Galería Códicen (Nikaragua) Guillermo Vargasek kaleko txakur bat lotu zuen, gosez zelan hiltzen zen ikusteko, edo, haren esanetan “inork txakurra salbatzen zuenez frogatu egiteko”; ez zen gertatu.

Antzeko zerbait ikus dezakegu zoologiko, akuario eta zirkuetan. Erakunde horiek animalia exotikoekiko eta naturarekiko ezagutza zabaltzen dutela argudiatzen dute, baina espezie askotako norbanakoak hartu eta habitat arrotzetan, euren benetako bizi baldintzetatik oso urrun dauden espazioetan sartzen dituzte. Animalion jokabideak ez dira eurenak, trukoak egin ditzaten esplotatzen dituzte, eta estereotipiak garatzen dituzte habitat artifizialeetan preso egoteagatik, espezie arrotz askorekin pilatuta bizitzeagatik eta horrek sortzen dien estresagatik. Bizitza osoa preso ematen dute, bisitariak segundu batzuetan ikus ditzaten.

Guggenheimeko erakusketari dagokionez ere, naturaren ezagutza erabili dute aitzakia gisa energetikoen negozio erraldoiak eta museoak. Klima larrialdia aipatzen dute erakusketaren deskribapenean, baina esplotazio ariketa horrek gizakiok animaliekiko eta naturarekiko dugun harreman menperatzailea indartu besterik ez du egiten.

Tamalez, museoek natur zati bat edo bertako biztanleak harrapatu eta monetizatzen dituzten garaia bizitzea egokitu zaigu. Eta, hori nahikoa ez dela, gainera, animalia horiei fabore bat egiten arituko balitzaizkie bezala jokatzeko dute, euren eta naturaren kontra egiten duten logika antropozentriko eta espezistak aplikatuta.

Bada garaia logika zapaltzaileak eta greenwashingak detektatu eta errotoz ateratzeko, behintzat bizi dugun Lurra zaindu nahi badugu eta gainontzeko animaliekin ditugun harreman etikoak eta guztiontzat mesedegarriak izatea nahi badugu.

“Ez da Guggenheim museoak gizakiaz besteko animaliak, **arte garaikidearen izenean, esplotatzen dituen lehen aldia**”



EMAITZAK BAINO ASKOZ GEHIAGO

Mainer Lopez

“Lesioak, presioa eta beste ezustekoak, kirolariek nahiko luketena baino garrantzi handiagoa dute”

Emaitzak kirolaren motorra izan arren, ez dira arlo honetan baloratu behar den gauza bakarra. Kirola ahalegina, sakrifizioa, sufrimendua, iraunkortasuna, borondatea eta hobetzeko grina ere bada.

Horren adibide argia pasaden hilabetean, apirilak 26an zehazki, ikusteko aukera izan genuen Londreseko maratoiaren 46. edizioan. Sebastian Sawek kenyarra eta Yomif Kejelchak etiopiarra beraien izen-abizenak atletismoaren historian grabatu zituzten, biak maratoi distantzia, 42 kilometro hain zuzen, bi ordutik beherako denboran osatzeko. Eta ez hori bakarrik, egun berean emakumeen proban, munduko errekorra ere gainditu zen. Protagonista Tigst Assefa etiopiarra izan zen eta hamar segundotan jaitsi zuen bere marka unibertsala emakumeen maratoian.

Lana, ahalegina, sakrifizioa, sufrimendua eta iraunkortasunik gabe ezin izango litzateke posible emaitza horiek lortzea. Baina kirol guztietan gertatzen den moduan, txanponak bi alde ditu: aurpegia eta gurutzia. Nahiz eta ahalegina ezinbestekoa izan, lanak ez du beti arrakasta ziurtatzen.

Duela bi urte, Paris 2024ko Joko Olinpikoetan, adibidez, 10.500 atleta inguru hartu zuten parte, 5.250 emakume eta 5.250 gizon. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak argitaratutako informazioaren arabera, 2.300-2.500 kirolari olinpikok lortu zuten domina. Beste era batera esanda, parte hartu zuten kirolari guztien artean, %17a bakarrik irabazi zuen domina eta lortu zuen loria.

Badago argi kirolan ematen diren emaitzen atzean asko dagoela. Arrakasta eta esker onaren atzean, esfortzua, sakrifizioa eta iraunkortasuna dago. Nahiz eta guzti hau ezinbestekoa izan, ez du beti arrakasta eta emaitza onak ziurtatzen. Lesioak, presioa eta beste ezustekoak, kirolariek nahiko luketena baino garrantzi handiagoa dute. Hala eta guztiz ere, horretan guztian dago kirolaren funtsa.

Argazki erreportajea

BUKATU DIRA 2026KO OTXOMAIIOAK, AKASO ESKUALDEKO JAIRIK ONENAK. LANGA ALTUA JARRI DUTE URDUÑARREK, ETA GIROA BEROTU ATE JOKA DAUDEN GAINERAKO FESTAK ZUKUTZEKO.

Otxomaioak: mokadu goxo bat festa gosea asetzeko



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Maiatzaren 7tik 17ra luzatu dira Urduñako Otxomaioak, askoren iritziz eskualdeko festarik onenak. Markari eutsi diote urduñarrek, eta egun argiz zein gauez bete dituzte hiriko kaleak. Baina izan dira festa-giroa belztu duten egoe-rak ere. Jaietako lehen asteburuan

eraso matxista larriak salatu zituen Urduñako Jaiak Koordinatzeko Mahaia. Ehunka lagunek salatu zuten gertatutakoa, "indarkeria matxistak Urduñan tokirik ez duela" aldarrikatuz. Udalak balioan jarri du erasoen aurka egindako mobilizazioa. Bestetik, aitortu du hainbat arazo egon direla argindarrarekin, baina gauza horiek guztiak hobetzeko lanean ari

direla ziurtatuta. Tokiko administrazioak inkesta bat jarri du hiritarren eskura, jaien inguruko balorazioak biltzeko.

Badute, beraz, hobetzeko tarte Otxomaioek, datozen igarotakoak baino hobek izan daitezten. Bihotzaren erreketa jarri du berriz martxan atzera kontua: egun bat gutxiago 2027ko Otxomaioei hasiera emateko.



Babestutako espazioa

AIARALDEA



IBILIZ

Aiaraldeko IV.udaleku ibiltaria
UZTAILAREN 2tik 7ra



IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIOA

Uztailaren 2,
10:00etan hasiera
Uztailak 7,
12:30 bukaera


DBH2- BATXI 1
(2009-2012) urte
bitartean jaiotakoak

Bazkideak 85 €
Ez bazkideak 120 €

Izena emateko
azken eguna
ekainak 15

www.labur.eus/faktoriakoudalekuak2026

Tlf: 693 855 312 (Aritz)
www.faktoria.eus



Ezagutu
Kokorikoren
Udako
eskaintza
guztia alboko
QRan!

Kultura

“MUNDUA NOLA DAGOEN IKUSITA, OIHU EGITEKO BEHARRA SORTU ZAIT BERRIRO”



OIER VELEZ (Laudio, 1989) DA OKHER PROIEKTUAREN ATZEAN DAGOEN SORTZAILEA. HIRUGARREN DISKOA PLAZARATU BERRI DU, RAP ETA PUNK DOINUAK ERDIBANA UZTARTUTA.



Testua eta argazkiak **Txabi Alvarado Bañares**

Bost urte igaro dira azken lana plazaratu zenuenetik. Zertan aritu zara ordutik hona?

Carlos Creator ekoizlearekin lan egiten hasi nintzen, Bilbon. Berak deitu ninduen disko bat egiteko. Ez genuen ondo elkarte ulertu. Urte erdi eman genuen lanean, bukle batean sartuta, bi single ateratzeko, eta hor geratu zen kontua. Apur batez geratu nintzen. Gorka Fernandez gitarra jotzaileak ere taldea utzi zuen, eta nire gauzetara egon naiz. Arazo pertsonalak ere egon dira... eta bat-batean dena agertu zait aurrean. Ekoizle bat ezagutu... denak bultzatzen ninduen berriro musika egitera. Kasualitatea, badakizu.

Kantuak bat-batean sortu ziren edo aspalditik gordeta zenituen ideiekin osatu duzu?

Denetarik dago. Musikalki dena da berria, baina badaude gordeta nituen letra batzuk atera nahi nituenak. Nik uste dut hau dela orain arte egiten dudana lanik zintzoena.

Zergatik?

Esan nahi nuen guztia islatu dut disko honetan, beldurrik gabe.

Lehen kolpean badago gauza bat arreata deitzen duena: abestiak bikoiztuta daudela, rap estiloan alde batetik, eta punk-hardcore formatuan bestetik.

Mundua nola dagoen ikusita, oihu egiteko beharra sortu zait berriro, eta raparekin ez nuen hori lortzen. Horregatik egin dut erdiz erdi. Okherrekin neraman rap ibilbideak bultzatu nau punka modu berri tagarriagoan egitera. Lehen punka egiten nuen, eta orain nahasketak egin nahi nuen. Rap formatuko bost kantu sartu ditut ez egiteko dena ezberdina bat-batean, trantsizio moduko bat egiteko. Bada bide bat rapetik gaurko soinura eramaten nauena.

Zure aurreko diskoak baziren rap estilokoak, baina gero zuzenekoak punk formatuko bandarekin egiten zenituen.

Bai, saiatu ginen horrelako zerbait egiten. Orain dena dago hobeto nahastuta. Nire doinua aurkitu dudala uste dut. Oso pozik nago lanarekin. Normalean badakizu: artistek egiten dute lana eta bada maitasun-gorrotu harreman bat. Eta nire kasuan beti zen gorrotzkoa. Bi egunetan nekatzen nintzen, ez ninduen guztiz asetzen. Honekin oso pozik nago, ehuneko ehunetan islatzen du naizena.

Zure lanik zintzoena dela diozu. Nola islatzen da hori letretan?

Banituena gauza nahiko pertsonalak lan honekin kaleratu nahi nituenak. Egia da horrek bultzatuko duela jendea politikoki nahiko kokatzen, baina ni nago hitz egiten nire iraganaz. Orduan argi utzi nahi dut politika albo batera utzi ahal dudala, ez dudala gustuko ez bata ez bestea... barruan nuen askatu nahi nuen, azken finean.

Erreferentzia ugari daude diskoan, batzuk esplizituagoak eta beste batzuk sotilagoak. Pompeya izeneko abestian, adibidez, ez du Lamuza parkean dagoen Pompeya gunearekiko erreferentziarik topatu, baina imajinatzen dut egongo dela, ez?

Ez, abestiaren izena ez da horregatik. “Alma reducida a cenizas, Pompeya” dio kantuak (“Errautsetara murriztutako arima, Pompeya”).

Ba pentsatzen nuen toki horri egiten zeniola erreferentzia.

Asko galdetu didate hori, baina baliabide estetiko bat baino ez da.

“Esan nahi nuen guztia islatu dut disko honetan, beldurrik gabe”

Madero kantua bideoklipa plazaratu duzu. Bertan bandarekin jotzen agertzen zara. Hala igoko zara oholtzara ere?

Bai, dena egingo dugu bandarekin. Are gehiago: beste bederatzikanta prestatu ditugu, letra zahar zein berriekin, ordubeteko zuzeneko ontzeko, dena “kaña”. Rapa kantatzeko deitzen banaute ere joango naiz, musika mundua gaizki dagoelako...

Bi gauzak egiteko aukera duzu.

Hori da, aukera sorta handiagoa dugu.

Lan honekin bereziki pozik zaudela diozu. Zer ezberdintasun sumatzen dituzu aurrekoekin alderatuta?

Batzuetan astroak alienatzen dira eta klabea topatzen duzu. Izan daiteke esperientzia. Okher esperientziazioa izan da. Nik entzuten

Kultura

nuen rap apur bat, ezagutzen ditut rapeatzaile pilo, eta hasi nintzen horrela abesten *Ama* abestian, eta ikusten nuen formatu horretan jendeak hobeto entzuten zuela letra eta mezua. Baina orain mundua nola dagoen ikusita uste dut oihukatu egin behar dela, izorratuta gaudelako.

Asko eragin du testuinguruak zure ibilbide artistikoan?

Bai, asko. Hori diot: rocka, punka eta estilo horiek ziklikoak dira, eta dirua falta denean, lana falta denean, geroz eta lotuago gaudenean, orduan hasten dira bazterrak oihuka. Gizarteak eskatzen dizu.

Bederatzi abesti gehiago prestatzen zaudetela esan duzu. Horiek ere grabatuko dituzue? Edo zuzenekoetarako erreserbatuta egongo dira?

Bai, baditugu grabatuta maketak zuzenekoetan jotzeko, baina hurrengo diskoa izango da. Noiz aterako den? Batek daki. Agian uda ostean edo agian datorren urtean. Ez gara presaka joango, honetaz gozatuko dugu lehenbizi.

Aurten hasteko asmoa duzue zuzenekoekin ere?

Bai. Hainbat tokitatik deitu gaituzte, baina kontzertuak sei hilabete lehenago ixten dira. Udan jotzea proposatu digute, baina oraindik ezin dut ezer aurreratu ez dagoelako datarik itxita, baina Gabonetarako izango ditugu kontzertu nahiko potoloak.

Alde bisualari ere ematen diozue garrantzia: estetika zehatza, bideoklip landuak... Gaur egun gainera, geroz eta pisu gehiago hartzen dute horrelako elementuek. Zuenen ere?

Nire kasuan eragina izan duena izan da zentratuagoa nagoela, buru-belarri nago honetan, burua bere tokian.

Koloreka ateratzen ditut diskoak. Lehena izan den zuria, USB formatuan. Bigarrena Akira animean oinarritutako alegoria bat izan zen, pilula gorri eta urdinarekin. Akirak gainera hitz egiten zuen 2020an gertatzen zen apokalipsi bati buruz; 2021ean plazaratu nuen diskoa baina gorputzak eskatzen zidan horrela girotea.

Azken honetan, aldiz, kolore horia gailentzen da. Ezegonkortasuna adierazten du, izurria, nire ustez horrela baitago mundua. Pastilla formako USBetan sartu

ditut diskoak, ez dakit hurrengoan zer egingo dudan. Inoiz baino gehiago zaintzen dut estetika.

Zu zara Okher, baina taldea ere bada. Zaila da zure sorkuntza prozesua eta taldearena uztartzea?

Prozesu interesgarria da. Tailandian ezagutu nuen tipo bat *coffe shop* batean, bazela nire Bartzelonako lagunengana laguna. Bere lagun bat nire DJa izan zen, DJ Hosky.

Hamabost egun igaro nituen berarekin bertan. Rapeatzaile dominikar bat ikustera gonbidatu nuen Bilbon. Gordo del Funk ekoizlea zegoen bertan DJ moduan. Berarekin hitz egiten pentsatu genuen elkarrekin zerbait egitea, eta horrela sortu zen diskoa. Zaragozara joan nintzen. Hiruzpalau egun egon nintzen bertan berarekin diskoaren rap kantak grabatzen.

Hasieratik nuen argi beste bost punk kanta sartu nahi nituela. Horretarako mutil gazte bat topatu nuen, Iban Irastorza, Beasaingoa. Bere bideo bat agertu zitzaidan, zeinetan rap abestien punk bertsiok egiten zituen. Hori zen gutxi gorabehera buruan neukana. Galdetu nion ea animatzen zen eta bion artean egin genuen bigarren

“Rocka, punka eta estilo horiek ziklikoak dira, eta dirua falta denean, lana falta denean, geroz eta lotuago gaudenean, orduan hasten dira bazterrak oihuka”

zatia. Gero batu zen Jabi Palacios baxuan, aurreko etapan nirekin egon zena. Mogorekin (bateria-jotzailea), aldiz, urtebetez egon nintzen tanteatzen. Santurtzikoa da bera eta gaztetan rapa abesten zuen.

Garate estudioetara joan ginen grabatzera, Kaki Arkarazorekin. Musikariak ez ziren euren artean ezagutzen, baina nik banekien ondo aterako zela dena.

Zuzenekoetarako bai izango duzuela lana talde moduan finantzatzeko.

Urrian grabatu genuen diskoa, eta hortik aurrera sekulako lana egin dugu. Familia bat sortu dugu. Falta zaigu kaña apur bat sartzea hurrengo bi hilabeteetan, baina hor gaude, gelditu gabe.

Lehen esan dudana errepikatzen dut: oso zentratuta nago, energia onarekin, gogoekin, ilusio handiarekin... txikitik bezala. Eta hori eta kutsatu egiten ditu gainontzeko musikariak, eta igartzen da diskoan.

Musika grabatzen duzunean energia ere hor dago. Giro txarra badago hori azaleratu egiten da musikan, ez du zirrara berdina sortzen.



Kultura

Delika eta Faktoria lotuko ditu Basa Zikloak maiatzaren 23an

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Apirilean abiatutako Basa Zikloak geldialdi berria egingo du datorren igandean, maiatzaren 24. Zikloaren bigarren topaketak Delika eta Faktoria elkarlotuko ditu, bidean diziplina anitzak uztaiz: permakultura, naturaren ezagutza, sorkuntza, irudiak, antzerkia eta olerkia.

Delikako Eskola zaharrea egingo dute lehen hitzordua. Bertan Maia Permakultura proiektua eta permakulturaren etikak eta printzipioak ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileek, Ivan Tellaetxeren eskutik

Eguerdian, *Gorputza eta Paisaia* izeneko praktika saioa egingo dute basoan barrena. Behaketa prozesua landuko dute parte-hartzaileek, naturarekiko eta gorputzarekiko lotura sakontzeko helburuarekin.

Bazkalostean Faktoriara joko dute parte-hartzaileek. 17:00etan, Ainhoa Apeztegia eta Garazi Idirinen egonaldietako sorkuntzen saio irekia izango da. Memoria, ibaiaren ertzen urruneko harremana, gaua barnean duten irudiak, euskarak nola gorpuzten gaituen, esploratu dute besteak beste artista gaz-

teek. Ondoren Formol Laborategiak *Heriotzak Eduardo du izena* pieza aurkeztuko du. *Biziei ere omen* liburuko poematik abiatuta sortutako lana da, eta taldearen hitzetan, "poesia ez-errezaldia" da.

Sarrerak honako prezio hauekin egongo dira eskuragarri: bazkideentzat 8 euro, ez-bazkideentzat 10 euro, eta langabe zein ikasleentzat 6 euro. Horrez gain, interesdunek 633 51 73 83 telefono zenbakira deitzeko aukera izango dute, bai informazio gehiago eskatzeko, zein Delikako ekintzen kokapenari buruz galdetzeko.

Urduñako museoak ateak ireki ditu berriro, hiru hilabeteren ostean



Hiru hilabetez luzatu dira museo lanak. Aiaraldea.eus

Testua
Maidier Ramirez Martin

Maiatzarekin batera ateak zabaldu ditu berriz ere Urduña Hiria Museoak. Klimatizazio lanak egin dituzte bertan, Europako funtsak baliatuta. Iker Santocildes alkateak goraipatu du obra guztia kanpo finantzazioaren bidez egin dela, "udalaren aurrekontua ukitu gabe". Modu horretan, nabarmen hobetu da eraikinaren energia-kalifikazioa, eta argindarraren gastua %71 murriztu da.

Museoa berriro martxan

Hiru hilabete iraun dituzten lanak amaitu ostean, erakusketak eta ekintza berriak hartuko ditu museoak datozen hilabeteetan.

Hain zuzen ere, hilaren lehenen inauguratu zuten 'Urrutiko Haurtzaro baten Jolasak eta Jostailuak' erakusketa. Manu Alzueta eta Nerea Perez senar-emazteen bildumaren lagin bat egongo da museoan. Azken 35 urteetan, 1960ko hamarkadaz geroztiko 3.000 jolas eta jostailu baino gehiago bildu dituzte. Urrira arte egongo da museoan ikusgai.

Maiatzaren 16an, Encarni Lopez artista ugaotarraren Larrua

arte erakusketa heldu zen museora, eta uztailaren 19ra arte bisitatu ahalko da. Horrez gain, hilabete amaieran Jose Maria Pinto Rey Artziniegako margolariaren obra ikusgai jartzea espero dute. trafikoa zein oinezkoen aldizkako eteteak egon dira.

Irekierak aukera emango dio Orduña Hiria Museoari orain arte lortu duen arrakastari eusteko. Izan ere, ia 10.000 bisitari izan zituen, 13 erakusketa antolatuta (museoan modu finakoak dauden bildumez harago). Gainera, 850 bazkide ditu dagoeneko Hamaika Kale elkar-teak kudeatutako espazioak.

7. urterrena

Urduñarrak Otxomaioen bigarren txanpan murgilduta zirela ospatu zuten museoaren 7. urterrena. Efemeride berezia izan zen; izan ere, 144 urte bete ziren ere museoaren eraikinaren lehen harria jarri zenetik.

Urteurren bikoitz hori ospatzeko kontzertua eskaini zuten iluntzean. Harresian egitea zen hasierako asmoa, baina elizara mugitu zuten azkenean, eguraldiaren ondorioz. Hala ere, ehunka lagun bertaratu ziren Bi Hotsak taldearen emanaldiaz gozatzera.

21, eguna
18:00-21:00 - Faktorian
TAILER TEORIKO-PRAKTIKOA/
**AGROKOFEMINIS-
MOTIK ELKAR
ELIKATUZ ZIKLOA
HAZIERA**
DOAKOA
IZENA-EMAN: L.EUS/BORBOR/TLF
#BORBORELKARTEA
#ELIKADURAFAKTORIA

21, eguna
18:00 - Faktorian
FAMILIEN KABIA/
**FAMILIEN KABIA:
AMAIA EGIDAZU
IPUINAK ZEINTZUK
ETA NOLA KONTATU
HAURREI?**
DOAKOA
#HEZKUNTZAFAKTORIA
#FAMILIENFAKTORIA

23, zapatua
10:00 - Arrankudiagako
Oxinburun
SOLASALDIA/
**F2035:
ESKUALDETASUNA
ETA KOMUNITARI-
OTASUNA BISIO
ESTRATEGIKOA**
DOAKOA
#HEZKUNTZAFAKTORIA
#FAMILIENFAKTORIA

24, domeka
**BASA ZIKLOAREN
II. TOPAKETA**
10:00 Delikan
PERMAKULTURA ESPERIENTZIA
14:00 Delikan
PERMA - ZER?? SANTA AGEDARA
IBILALDIA
14:00 Delikan
DASTAKETA
17:00 Faktorian
AINHOA APEZTEGIA ETA GARAZI
IDIRIN ARTISTEN SAIO IREKIAK
18:30 Faktorian
HERIOTZAK EDUARDO DU IZENA
FORMOL LABORATEGIA
**BAZKIDEEK 8€
EZ-BAZKIDEEK 10€
LANGABETU ETA IKASLEEK 6€**
#KULTURFAKTORIA
#SORMENFAKTORIA

28, eguna
18:00-21:00 - Faktorian
TAILER TEORIKO-PRAKTIKOA/
**AGROKOFEMINIS-
MOTIK ELKAR
ELIKATUZ ZIKLOA
BEHARRETIK
PLAZERERA**
DOAKOA
IZENA-EMAN: L.EUS/BORBOR/TLF
#BORBORELKARTEA
#ELIKADURAFAKTORIA

31, domeka
11:00 - Faktorian
FAMILIEN KABIA/
**0-3 URTEKO
HAURRETZAKO
JOLAS LIBRERAKO
ESPASIOA**
BAZKIDEEK 6€
EZ-BAZKIDEEK 7€
#KOKORIKO
#HEZKUNTZAFAKTORIA

2035
GOGOETA
ESTRATEGIKOA
AIARALDEAN BIRINTZEN
FAKTORIA

**FAK-
TORIA**

WWW.FAKTORIA.EUS

Familia albumetatik memoria kolektiboa sortzea: Laudioko zazpi emakumeren argazkiak plazara



Ainhoa Resano artistak gidatu du *Ellas* proiektua, Laudioko III. Jardunaldi Feministen egitarauaren barruan. Aiaraldea.eus

Testua
Maidier Ramirez Martin

Abiatu da Laudioko Jardunaldi Feministen hirugarren edizioa, *Zukutu feminismoa* lemapean. Udalak eta Laia eskolak antolatuta, hamaika ekintza egongo dira hilaren amaiera bitarte: proiektzioak, tailerrak, antzezlanak, solasaldiak, liburu aurkezpenak... betiere feminismoa ardatz hartuta.

Ainhoa Resano artista bisualaren *Ellas* proiektuak ireki du bi astetan luzatuko den egitaraua. Azarotik otsailera artean, zazpi emakumez osatutako memo-

ria-talde baten elkargune izan da Lezeaga aretoa.

Resano izan dute gidari, eta elkarren artean berreskuratu dituzte bakoitzaren albumak eta bertan gordetako argazki formatuko oroitzapenak. Saio horietan "migrazioaz jatorrizko herriez, Laudioko iragan industrialaz eta landa-eremuaz, grebez, amatasunaz, maitasunaz eta amamen, amen eta alaben arteko harremanaz" mintzatu dira, eta nor bere oroitzapenetatik abiatuta marraztu dute memoria kolektiboa. Lola, Aureli, Begoña, Marisa, Maribe, Miren eta Toñi. Horiek dira Ele-

xalde kaleko horman kokatutako argazkien protagonistak. Kasuren batean, haiek eurek beharrez, haien amak ageri dira irudietan. Zazpi horiez gain, beste hainbat argazki ere bildu dituzte eta mahai-oihal bat ere ondu du Resanok, Lezeaga aretoan geratuko dena aurrerantzean.

Herritar ugariren arreta bereganatu zuen iragan maiatzaren 18ko aurkezpenak, eta *Ellas* proiektua jendarteratzeaz gainera, aurtengo Jardunaldi Feministen egitaraua ere zabaltzeko baliatu zuten hitzordua Nagore Gomara zinegotziak eta Ainize Gastaka alkateak.

Hango eta hemengo musikarien sormen-leku izaten jarraitzen du Artiñano Etxeak

Testua
Maidier Ramirez Martin

Ikusmira estetiko handiko kokalekua da Artiñano Etxea eta hainbat ikus-entzunezko piezaren eszenatoki bilakatu da horrexegatik. Tartean, bertan grabatzen dute Gaztea Kabian. Saioan, Euskal Herriko eta nazioarteko bi artista edo talde elkartzen dira eta egun batez kanta bat sortu eta grabatzen dute.

Bigarren denboraldia irailean estreinatu zen, eta lehen atalean Hofek eta Jimena Amarillok *Pan-pin bat bezala* kanta ekoitzi zuten. Geroztik, beste hiru sormen pie-

za eman ditu Kabianek. Marte Lasarte pop elektroniko taldea kSilua Lua bakarlarik galiziarra-ekin batera *Errepide* kanta sortu eta otsailean kaleratu zuten.

Ondoren, Eire bikote zumaia-rra eta Kataluniako Maig abeslaria elkartu ziren eta egonaldiak emandakoarekin *Ez dakizunean* abestia idatzi eta interpretatu zuten.

Artiñano Etxetik igarotzen azkenak Bele eta Sofia Gabanna izan dira. Argentinatik dator azken artista hori eta Nathy Peluso abeslari ezagunaren ahizpa da. *Banoa* da elkarrekin sortu duten kantaren izenburua.

OROZKOKO AZOKA

Maiatzak 30 | Hegoalden

8:30 Abereen sarrera azokara.

9:00 Parte hartzaileen gosaria.

10:00 Merkatua: nekazaritzako elikagaien produktuak eta artisautza.

10:00 II Euskal Herriko Mendiko Zaldi lehiaketaren hasiera.

11:00 III Azpigorri lehiaketaren hasiera.

11:00 Zaldi-okelaren dastaketa.

14:00 Abere txapelketaren sari-banaketa.

15:00 Abere azokan parte hartu dutenen bazkaria.

17:10 Esku pilota profesionala. Lau t'erdiko San Fermin torneoaren kanporaketak.

Egindako erosketa guztiek tokiko produktu-loteen zozketan parte hartuko dute.

Merkatuan egindako 30 €-ko gastu bakoitzeko, merkatu bereko produktuez osatutako opari bat jasoko da (stocka agortu arte).


YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
80 urte zurekin



PADI PROGRAMA




INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIK

Mediku zentroa RPS: 314/18

Karmen Kalea 13, behe LAUDIO (Araba) 946 723 100



Kultura

“BIZI AHAL IZATEKO ESPAZIOAK SORTZEN SAIATZEN NAIZ PINTURAREKIN”



IZASKUN ALONSO SARATXAGA (Bilbo, 1971) MARGOLARIA ETA LAUDIOKO KULTURZALEAK ELKARTEKO KIDEA DA. TALDE HORRETAKO KIDEEK URTEAK DARAMATZATE KULTURLAB EKIMENA GARATZEN.



Testua eta argazkiak
Txabi Alvarado Bañares

Kulturlab ekimenetik urteak daramatzazue erakusketak antolatzen Elizalde kalean duzuen espazioan. Zergatik erabaki duzu orain zu sortzaile moduan bertan zure lana erakustea?

Hori bai dela tristea (barreak). Egia da jendeak esaten zidala egin behar nuela, baina egia da ere momentuz ez dugula ezer jaso diru aldetik. Ez genuen espazioa itxita izan nahi, eta horregatik egin dut nik (barreak).

Aurten nahiko berandu doaz dirulaguntzak, eta horrelako toki bat duzunean pena da irekita ez izatea, eta gure nahia denez artisteri ordaintzea, diru hori izaten saiatzen gara.

Erakusketa erabat koiunturala da, beraz.

Nik uste dut baietz, nahiz eta beti dudan horrelakoak egiteko nahia herrian ere. Ni normalean bigarren planoan geratzen naiz, nahiago dudalako besteen lanak bultzatzea, ez nireak. Bestela badirudi horrelakoetan sartuta zaudela esateko: “Begira, hemen nago!” (barreak).

Jada prestatuak zenituen obrak ekarri dituzu edo zozer espezifikoa prestatu duzu?

Erakusketa instalazio moduan sortzen da, baina materialak bazeuden eginda. Tailerrean nituen hainbat pieza aukeratu ditut, hona ekarri eta euren arteko solasaldi bat

sortzeko. Gustatzen zait *site specific* deritzon lana egitea, espazioa ikusita zerbait muntatzea. Kasu honetan saiatu naiz beste gauza bat egiten, erlazioak sortzen piezen artean.

Piezek zentzu berriak lortzen dituzte orduan.

Hori da. Lan egiteko bi modu ezberdin direla esan daiteke. Tailerrekoa dago alde batetik. Bazaude margotzen eta heltzen da une bat zeinetan lana amaitutzat ematen duzun. Erakusketa baterako orokorrean pintoreak egiten duena bada emaitza horiek eramatea.

Baina niri gehiegi gustatzen zait espazioa. Bertara iristen naizenean beste gauza batzuk sortzen ditut, espresuki horretarako. Badago zerbait aurretik egindakoa, baina beti kontuan izanda tokiaren arkitektura.

Kasu honetan ere saiatu naiz horrelako zerbait egiten. Egia da banuela gogoa ziklo bat amaitzeko. Hemen dauden piezak azken hamar urteetan daude eginda...

Hori galdetu nahi nizun. Duela hamar urte inguru egin nizun elkarrizketa bat, eta esango nuke orain ikusgai dituzun piezak estilo aldetik badutela antzekotasuna ordukoekin, kanpotik ikusita behintzat. Hamar urte iraun du zikloak?

Uste dut aipatzen duzun elkarrizketa 2016an egin zidala, eta garai hartan tesia prestatzen nengoen dagoeneko. Amaitu nuen, eskerrak (barreak), eta tesiarekin batera proposatu nituen horrelako erakusketa batzuk, niretzat ariketak zirenak. Teorikoki ikertzen nuena saiatzen nintzen

egiten ere espazio ezberdinetan.

Bakarrak geratu nintzen gainera. Banuen enpresa bat beste kide batekin, baina heldu zen une bat zeinetan banatu ginen, bera hasi zelako irakaskuntzan lan egiten. Oihalak eta paperak gehiago lantzeari ekin nion orduan. Beste estilo bat proposatu nahi nuen, beste izen batekin.

Orduan hasi nintzen geometria gehiago lantzen. Errazago egiten zitzaidan modu horretan esku hartzea espazioan. Bi bide horiek pixka bat nahastuta daude. Lan horrek aukera ematen zidan baita material berriak ikertzeko ere.

Egia da zikintzen dela eta gauzak hiltzen doazela nolabait. Baina hemen agertzen diren gauzetako batzuk dira paperak, moketa, sintasola, kartoia... koadroan zegoena beste euskarri batzuetara pasatzea bilatu dut, bizitzan erabiltzeko, gaurkotasunarekin kontaktu bat izateko. *Habitar la pintura* zen nire tesiaren izenburua, eta hori nuen helburu. Erakusketa honen titulua *Leku bat* izan da: leku bat izan esateko bakoitzari zer den, nor den edo zer sortzen den. Ni pinturaren bitartez saiatzen naiz espazioak sortzen bizi ahal izateko.

Zerk markatuko du zure ziklo aldaketak?

Eibarren izan dut erakusketa kolektibo bat. Bertan proposamen bat egin nuen figurazioari lotuta. Hemen koadro figuratibo bakarra daukat, beste margolan handiago batekin erlazionatua zegoena, zerikusia zuena *El maestro que prometió el mar* pelikularekin. Oso film ederra da hori niretzat.

Kultura

Eibarreko erakusketako partaide guztiak ginen irakasleak, eta bertan gehiago hitz egin nuen irakaskuntzari buruz pinturari buruz baino. Filma horretan sartu nintzen buru-belarri, maite dudalako eta ni bertako protagonista den irakaslea bezalakoa izan nahi dudalako. Omenaldi bezala egin nuen eta koadro honetan ikusten da sinbolikoki nola emakume batzuk heldu ziren itsasora, eta lortu zutela, nolabait, askatasuna.

Hor figura dago margotuta, beste gauza batzuk ere agertzen diren arren. Udan egon nintzen horrelako figurazio txikiak egiten, eta orain banago une batean zeinetan pentsatu nahi dudan nola integratu koadroetan ere figurazio hori, baina agian margotu gabe.

Horretan nago, horregatik diot beste pauso bat eman behar dela... Nik nahiago dut abstrakzioa, beste aukera batzuk ematen dizkidalako koadro berarekin beti lanean jarraitzeko. Argazkiak egiten dizkiet margolanei eta gero horiek editatzen ditut ordenagailuan, ateratzen ditut beste euskarrietan... askotan formatu hori berriro izaten da oihala, eta mihise horretan jarraitzen dut margotzen, egiten dut berriro argazkia eta jarraitzen dut... figurazioa dagoenean askotan koadroak ez dauka horrenbeste bizitzarik, amaitutzat ematen duzu edo aldaketak egiteko kasik desagertzen de marraztutako figura hori. Orduan nago ikertzen nola kudeatu haien arteko elkarrizketa, abstrakzio margotuaren eta ez dakit zer nolako figurazio motaren artean.

Kulturlabi buruz mintzatzeraz igaroko gara orain. Urteak daramatzazue erakusketa eta kultur ekitaldiak antolatzen, espazio honetan zein Lamuza parkean. Nola baloratzen duzue eginiko ibilbidea? Zeintzuk dira epe labur eta ertainera begira dituzuen helburuak?

Urte nahiko interesgarriak izan dira. Sare txiki bat osatu dugu, herrian zer dagoen ikusiz. Badago gehiago,

baina askotan zaila da azaleratzea. Elkartea zabaldu nahiko genuke, jendeak jakin dezan ez dela zerbait itxia. Guk beti esaten dugu hasi ginenean oso zaila zela gauzak azaltzea erakutsi gabe. Nahi genuen herrian gauzak gertatzea, baina ez badugu martxan jartzen politikariek gehienbat ez dute ezer ulertzen.

Beti egon gara parkera lotuta. SOS Lamuza Parkearekin hasi zen dena. Ni sartu nintzenean SOS Kultura zen gehiago (barreak). Kultur etxea zena itxi zuten eta momentu gogorak izan ziren erabiltzaileentzat, tailerrak eta abar zeudelako bertan. Nire iritziz, posiblea zen bertan beste gauza batzuk gehitzea. Izan ere, ez bazaude toki zehatz batean izena emanda ez duzu espaziorik. Ama bezala ikusita, pentsatzen nuen posiblea zela parkea denona izatea, edozein unetan sartu, zer dagoen ikusi eta espazioaz gozatu ahal izatea.

Nik uste hori zela taldearen nahia ere; eta, aldi berean, arte garaikidea bultzatzea. Une horretan Laudion ez zen halakorik ikusten, Faktorian agian bai, baina herri erdian ez. Guk gogoratzen dugu, nagusiagoak garelako, gaztetan Laboral Kutxak bazuela areto bat hemen, eta aukera zegoela sartzeko. Igual ez zen hain garaikidea, baina pintura eta eskultura ikusten ziren behintzat.

Horrekin lotuta, amestu nahi genuen, horrelako espazio arkitektoniko eta natural bat nola kudeatu zitekeen pentsatuz, berriro beteta ikusteko. Uste dut gaur egun ez goazela asko bertara.

Probak egiten egon gara urte hauetan. Hortik dator Kulturlaben 'lab' hori, laborategitik. Ikustea nola funtzionatzen duten hitzaldiek, tailerrek...

Baldintzak sortzea, alegia.

Argi dago horrelako espazio txiki batean ezin direla bi jarduera aldi berean gauzatu. Artearentzat espazioak eskatzen ditugunean esaten digute agian batekin nahikoa

dela. Baina agian ez. Bat izatea beharrezkoa da erakusketak egiteko, baina behar dira bestelakoak ere, sortzeko edo lan egiteko.

Horretan egon gara azken urteetan. Azken urtean sekulako lana egin dugu Cultiva enpresarekin batera, Udalak kontratatu zuelako Kultura plana aurrera atera eta parkean zer gertatuko zen pentsatzen laguntzeko. Kultur Kontseilutik pertsona batzuk beste talde bat egin genuen eta astero egon gara biltzen, espazioak banatzen saiatzeko, kudeaketa ereduak aztertzeko... bide horretan onartu egin da espazioen banaketa. Kontseiluan adostu da espazio ezberdinak egon daitezkeela kulturagune berrian, eta hori aurtan saiatuko gara garatzen, urritik aurrera.

Diozun moduan, Lamuza parkean ziklo berri bat hasiko da laster, obrak amaituta.

Guk lokal honetan jarraituko dugu beste urtebetez, guk eskatutako dirulaguntzak hona bideratuta daudelako, Vital Fundazioarena kasu. Baina eurekin harremanetan ari gara laguntza hori parkera mugitzeko, bertan gertatu behar diren gauza guztiak ekonomikoki kudeatu behar direlako.

Kulturlaben egitasmoa parkera doa, beraz.

Hori da gure helburu nagusia. Hori bai, beti diogu Kulturzaleak elkartea desagertzeko jaio zela. Guri gustatuko litzaiguke sare horretatik jende ezberdina ateratzea, prest egongo litzatekeena laguntzeko. Helburu nagusietako bat bada ere kulturaren bidez lanpostuak sortzea. Edozein proiektu aurrera ateratzeko inportanteena niretzat badira pertsonak. Pertsona horiek baldin badaude izango dira gai seguraski aurrera eramateko proiektu polit bat, eta horretarako denbora badago beste modu batean garatu daiteke, hezkuntza zentroekin edota bestelako eragileekin elkarlanean, zerbait berria sortzeko guztien artean.



Kirola

ESKALADAREN POTENTZIAL ERALDATZAILEA AZTERGAI



Nola baliatu daiteke eskalada ahalduntze feministarako tresna gisa? Galdera horren erantzunaren atzetik ibili da Maria Francisca Mas Riera ikertzaile feminista azken hilabeteetan bederatzi lagunekin batera Laudioko Orbeko Etxean burututako ikerketaren bidez.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Bide luzea egin du Maria Francisca Mas Rierak eskalada ikuspegi feministatik aztertzen. 2021ean *Escalantes* liburua argitaratu zuen, eta horren atzetik segidan etorri dira gainerako argitalpenak (*Ingrávidas* eta *Maternidades Escalantes*), hitzaldiak... Gaiari lotutako tailer ez-mistoak ere eskaini ditu ikertzaileak, Gorlizen edota Zarautzen, esaterako.

Urratutako bidean urrats bat aurrera egin du Mas Rierak Gasteizko Udalak sustaturiko ikerketa feministen lehiaketari esker. Tailer ez-mistoetan bizitakoa aztertzea izan du helburu. “Tailer horietan gauza asko gertatzen ziren, gauza asko ikusten nituen, baina niretzako gordetzen nituen. Banuen gogo bertan bizitakoa ikerketa batean islatzeko. Ideia horrekin aurkeztu nintzen Gasteizko lehiaketara eta irabazi egin nuen. Horrek azterketarekin aurrera egiteko baliabideak eskaini dizkit”, azaldu digu ikertzaileak.

Orbekon garatu du ikerketa Mas Rierak, eta horrek balio erantsia eman dio lanari, baina ez zuen horrela izan behar: “Ikerketa Gasteizko hiru rokodromo publikoetako batean garatzea zen asmoa. Baina Berdintasun Sailaren eta Kirol Sailaren arteko desadostasun nabariak tarteko ezinezkoa izan da hura hiriburuan garatzea. Kirol Sailak oztopo ugari jarri dizkio ikerketari, asumitu ezin genituen oztopoak. Horrela ekarri genuen ikerketa Orbekora”.

Parte-hartzea ikasbide

Ikerketarako parte hartzaileak biltzea izan zuen Mas Rierak lehen-dabiziko zer egina. 18 urtetik gorako arabarrak bildu ditu; gizon cisak ez izatea marra-gorri bakarra. Zortzi laguneko taldea biltzea zuen asmoa, bederatzi izan dira azkenean, eta askoz gehiago modu batera edo bestera interesa erakutsi dutenak.

“Nabaritu nuen bazegoela interesa horrelako zerbaitetan mur-

giltzeko. Guztiak dira emakumeak, ez-bitar bezala definitzen den kide bat salbu. Jatorria, aldiz, anitzagoa izan da. Badira eskaladan asko aritu direnak, inoiz probatu baina jarraipena eman ez diotenak...”, azaldu du Mas Rierak ikertuen profilaz galdetuta.

Ikerketan parte hartu dutenek pseudonimo bana jarri diote norbere buruari: Ane, Cora, Harri, Sunflower, Nerea, Veleta, Juantxi, Renatoru eta Ortiga izan ditu ikertzaileak kide.

“Esperientzia honi esker ulertu dut beharrezkoak direla espazio ez-mistoak”

Garrantzitsua da kide hitza azpimarratzea. Izan ere ikerlarien munduan Ikerketa Ekintza Parte-hartzaile bezala ezagutzen dena izan da Orbeko Etxean garatutako esperientzia: “Horrek esan nahi du ni ikertzaile gisa taldeko kide bat gehiago naizela, ez ditut soilik ikerketara batu direnak aztertzen, haiekin batera parte hartzen dut. Posizio horizontala da, proposamenetara irekia eta guztia parte-hartzearen prisma ikertua”.

Veleta da Orbeko Etxeko taldean murgilduta egon den lagunetako bat. Gaztetan probatu zuen eskalada probatua eta lehenengo aldian zuten honakoa talde ez-misto batean parte hartzen: “MFK bultzatuta eman nuen nikizena. Nerabearoan urte pare bat eman nituen eskalada praktikatzeko. Banuen gogo berrartzeko, eta emakumeen eskutik bazen are hobeto. Nire lehe-

Kirola

nengo aldia zen espazio ez-misto batean parte hartzen. Ez nuen ondo ulertzen, espazio horien beharra. Tailer honi esker ulertu dut beharrezkoak direla, badagoe-la elkar-harremantzeko beste modu bat.”

Otsailean hasi eta bost astez luzatu da ikerketa. Astero-astero Orbeko Etxeko boulderrean elkar-tu dira, saio bakoitzean eskaladaren alderdi fisikoa eta hausnarketa uztartuz: “Beroketa batzuk eta eskalada ariketa gutxi batzuekin hasten ginen, eta ondoren irakurketa edo dokumental baten inguruan eztabaidatzen genuen”. Jolasa izan dute ardatz, ez hainbeste kirol diziplina. Hausnarketarako materialak ere ez dira ausazkoak izan. Kirolean dauden biolentzien inguruan irakurri dute, gorputz aniztasuna izan dute hizpide, interseksionalitatean ere murgildu dira Palestina eta Irango eskalataile emakumeen bizipenak ardatz harturik.

Taldearen garrantzia

Ikerketa entregatzekotan da Mas Riera, baina atera ditu ondorioak, eta baieztatu dezake baietz, eskalada badela eraldaketarako tresna. Taldea eratu dute, komunitate

“Kirol praktika batean espazio hurbil eta atseginean hastea funtsezkoa da norberaren garapenerako batez ere normara egokitzen ez garen horientzako”

txiki bat. Parte-hartzaile guztiek jarraitu dute eskalatzen behin ikerketa saioak amaituta, baita eskaladan sekula aritu gabe zirenak ere. Inor ez da praktikatik alden du.

“Batasun sentsazioa izugarria izan da, eta batez ere ez gara epaituak sentitu. Akaso beste espazio batean ezinezkoa litzake giro hori sortzea. Eskaladari lotutako beste ingurune batzuetan esposizio maila askoz altuagoa da; gorputzak, posturak, teknikak... denak dira epaituak”, aldarrikatu du Veletak.

Orbekon bizitakoen ostein, taldearen garrantzian egin du azpimarra Mas Rierak: “Kirol praktika batean espazio hurbil eta atseginean hastea funtsezkoa da norberaren garapenerako. Hori berebizikoa da, batez ere normara egokitzen ez garen horientzako”.

Badira bost urte Mas Rierak eskalada ikuspegi feministatik aztertzeari ekin ziola. “Urte haue-tan bildutako esperientzien segidan kokatu ditu ikerketako emaitzak: *Escalantes* liburuak eskaladan emakumeok eskaladan pairatzen ditugun biolentzien eta diskriminazioen erradiografia eskaintzen zuen. Narratibak bildu eta elkar babestua sentitzea zuen helburu.

“Utz diezaiozun praktika fisiko oro kirolaren prismatik begiratzeari. Bizi dezagun eskalada plazeretik, jolasetik..”

Egoera guzti horien aurrean egin dezakeguna atera dugu argitara ikerketa honekin”.

Bide horretan sokakideak egoki aukeratzea izan daiteke gakoetako bat. “Eskaladak asko du identitarioritik, arriskutsua ere badaaskotan. Eskalatze hutsagatik edozeinekin eskalatuko dut. Horrekin apurtzea bada urrats bat. Nire lagunekin eskalatuko dut, ondo sentiarazten nautelako. Utz diezaiozun praktika fisiko oro kirolaren prismatik begiratzeari. Bizi dezagun eskalada plazeretik, jolasetik... Zer da eskalataile izatea? Jar dezagun hori ere zalantzan”, aldarrikatu du ikertzaile feministak.

Komunitate bat

Sortutako harremana, talde kohesioa eta komunitate sentsazioa jarri dute balioan Mas Rieraren ikerketan parte hartu duten kideek. Ikerketatik kanpo ere aurrera jarraituko duen lagun talde bat.

Horren isla dira iragan maiatzaren 17an Orbekon ospatutako I. Kirol Elkartasun Topaketak; ikerketa taldean batutako lagunek elkarlanean antolatutako jardunaldiak, edota Orbeko Etxeko boulderraren biziberritzea. Eskaladak batu duen komunitate bat.



Kirola



“PSIKOLOGOARENENA
JOAN BEHAR
IZAN NUEN
ESPAINIAREKIN
JOKATZEKO ERABAKIA
HARTZEKO”

IÑAKI OLAGUENAZA ARZA (Laudio, 1962) ESPAINIAKO SELEKZIOAREKIN ARITU DA MUNDUKO ARETO HOCKEY TXAPELKETAN PARTE HARTZEN, ETA LAUGARREN POSTUA ERDIETSI DU BERTAN 55 URTETIK GORAKOEN KATEGORIAN.



Testua eta argazkiak **Txabi Alvarado Bañares**

Espainiako Selekzioarekin jokatzeko aritu zara Munduko areto hockey txapelketan. Zer moduzko esperientzia izan da?

Hainbat kategoria daude, 45 urtetik 70ra. Nik Master 55ean jokatu dut, Espainiak 50 eta 55ean soilik lehiatzen zuelako.

Esperientzia oso polita izan da. Jende askorekin egin dut topo, herrialde ezberdinetakoak. Adin honekin jokatzeko egoteko hockeyaren frikia izan behar duzu apur bat, pasioa izan behar duzu. Oso pozik itzuli naiz.

Kostatu zitzaidan erabakia hartzea. Duela bi urte deitu ninduten, baina ez nuen Espainiarekin jokatu nahi. Psikologoarenena joan behar izan nuen Espainiarekin jokatzeko lagundu ziezadan. Serio diot. Beti defendatu dut Euskal selekzioarekin jokatu nahi nuela, eta orain kuadrillako jendea aguantatu behar dut esanez Espainiarekin jokatzeko dudala eta galdetzen ea dudaren argazkiren bat kamisetarekin. Baina tira...

Eta zer bultzatu zintuen erabakia hartzeraz?

Honako hau esan zidaten: “Hockeya da, hockeyan jokatzeko gustuko duzu eta ez duzu Euskal Selekzioarekin jokatzeko aukerarik, ez dagoelako zure adineko talderik. Gustatzen zaizu, ba goza ezazu, har ezazu lagunarteko

txapelketa bat izango balitz bezala”.

Gauzak hala, “Espainia!” oihukatzen zutenean nik esaten nuen “A..”, eta listo (barreak).

Nire bikotekideak ere lagundu ninduen. Esan zidan: “Zoaz zure adineko jendearekin jokatzera”. Izan ere, ni Gardean banago 20-25 urteko gazteekin entrenatzen, eta eurekin jokatzeko dut jendea behar dutenean, baina besteak ez dut partidurik jokatzeko. Baina entrenatzera banator.

Eskertzen dut erabakia hartzea bultzatu izana, esperientzia polita izan delako eta orain Espainiako Selekzioarekin zurrunbiloan murgilduta nago jada, errespetu apur batekin eta “Espainia!” oihukatu gabe (barreak).

Lehen esperientzia horren atzetik beste batzuk etorri dira... lesionatu zaren arte.

Areto hockeyan lehiatzen egon gara orain arte. Laugarren geratu ginen Munduko Txapelketan. Ingalaterraren aurka lehiatu ginen podiumean sartzeko. Tranpa apur bat egin ziguten, baina tira, partidua galdu genuen. Aurretik finalurrekoa galdu genuen Herbeheren aurka. Partidu ona jokatu genuen, 6-3. Aurretik Australiari, Estatu Batuei, Irlandari eta Galesi irabazi genien.

Pena izan zen medailarik ez izatea, ilusioa egingo lidake, baina pozik gaude. Oso estu iritsi ginen, jende lesionatuekin... baina emaitza positiboa da.

Zeintzuk dira hurrengo erronkak?

Belar hockeyko Munduko Txapelketa dugu helburu, 60

urtetik gorako kategoria, abuztuan. Orain prestaketa apur bat egiten aritu gara. Murtzian egon gara eta jokatu dugun azkena 60 urtetik gorako Espainiako Txapelketa izan da. Lau talde zeuden eta brontzezko domina ekarri dut bertatik. Horrek balio izan digu selekzio moduan prestatzeko, eta hurrengo zita Valentzian da hemendik bi astera (elkarrizketa hau maiatzaren 2an egin zen), baina dudaren aberiarekin ez naiz iritsiko. Bartzelonan dago beste bat ekainean, eta uztailean beste bat Getxon. Hilabete horretan aterako da selekzioarekin joango den jendearen zerrenda.

Bertan egotea da zure helburua?

Bai, uste dut aukerak ditudala, beste lesioaren bat ez badut behintzat. 30 jokalaririk inguru gaude, entrenatzailea aldatzeko egiten dago, 22 inguru joango dira eta uste dut baietz, zerrendan egon naitekeela.

Baina badira hamar egun eta zazpi-zortzi partida, abuztuan, eta nire emazteak jada esan dit: “Aizu, nik animatu zintudan baina orain egunero zaude kanpoan” (barreak). Baina merezi du. Uste dut mundialera iritsi naitekeela.

Bizitza osoa daramazu hockeyan jokatzeko...

Bai, 12 urterekin hasi nintzen.

Hemen, Gardeako zelaian?

Bai. Beno, hemen ez. Zelai hau ez zen existitzen. Lamuza Eskolan hasi ginen, bertakoa zelako areto hockeyan

Kirola

jokatzeke Laudion zegoen pista bakarra. Laudioeko eskola guztiek zeukaten taldea!

Noizbait utzi duzu?

Ez, ez dut inoiz utzi. Futboleko ere jokatzen nuen, CD Laudion, eta bi gauzak uztartzen nituen.

Saiatzen ginen partiduak ez kointzidiarazten. Kirol asko egin ditut: korrika, sokatira... ez dakit trebea izan naizen edo ez, baina beti izan dut lotura hori.

Eta zergatik da hockeya orain arte mantendu duzun kirola?

Ez dakit. Nik uste dut Ganbegin geneukana lagun-talde bat zela, kuadrilla...

Zer izan zen lehenago, kuadrilla ala taldea?

Elkarrekin ikasten genuen eta aldi berean sortu ziren taldea eta kuadrilla. Jokatzen ez zuten lagunek taldean amaitu zuten azkenean, gurekin egoteko. Horrela mantendu zen taldea. Gero joan ginen jende gaztea sartzen, eta orain taldekideak bazkaltzeko baino ez gara geratzen, jada ez dugulako jokatzen, baina bagara kuadrilla.

Zer nolako bilakaera izan du Ganbegik urte guzti hauetan?

Lehen taldea askoz fisikoagoa zen, teknika oso gutxi lantzen zen. Guk hemen jokatzen genuen belarreko hockeyan, eta zelaia arezkoa zen. Imajinatu ezazu: mugimenduren bat egiten genuen bakoitzean pilota lurperatu egiten zen. Orain teknika saritzen da, eta azkartasuna. Jendea fisikoki askoz prestatuago egon behar da orain.

Lehen Mailako hockey talde bateko jokalariek maila bereko futbolariak baino askoz gehiago egiten dute korrika. Kilometroak kontatzen badituzu amildegia bat dago batzuen eta besteen artean. Orain hockeyan falta bat markatzen denean pilota gelditu egiten da, baina autosakea egon daiteke, eta horrek eragiten du jokoa askoz azkaragoa izatea. Duela urte asko jokoz kanpokoak zeuden, futboleko bezala, gero murrizten joan zen, eta jada 15 urte igaro dira guztiz kendu zenetik. Horrek eragin du askoz

“Noski, ezin dut 20 urteko gazte batek bezainbeste korrika egin, baina duela bost urte arte ez ninduten ezta ere atzean uzten, e! Badut nerbioa oraindik!”

gol gehiago egotea. Lehen emaitza ohiko bat 2-3 edo 1-3 izan zitekeen, baina orain egon daitezke 2-7 amaitzen diren norgehiagokak. Hobetu egin da ikuskizunaren aldetik.

Kirolaren zabalpenari dagokionez, lehen gazte gehiago zeuden Laudion, eta horrek aukera ematen zigun hockeyan jokatzen jende gehiago egoteko. Bi talde izatera heldu ginen. Iritsi ginen ere emakumeen bi talde izatera eta biak Espainiako Txapelketa batera sartzea beste sei talderekin. Arabatarrarekin bi aldiz irabazi da txapelketa hori eta beste bi Ganbegirekin.

Diziplina handia egon da, areto hockeyarekin batez ere. Orain pena apur bat ematen dit, kostatzen zaigulako gazteak erakartzea. Kirol gehiagotan gertatzen dela esango nuke, futboleko salbu. Egiten ditugu ahaleginak eta izan dezakegu 12-15 umeko talde bat. Hockeyan aritu diren guraso askok diote euren umeei futboleko jokatu nahi dutela, kuadrilla bertan dutelako.

Eta zu zerk motibatzen zaitu hemen jarraitzea?

Niretzako droga bat da, ez dakit hau gabe bizitzen. Hector (Borge) ez datorrenean ni aritzen naiz entrenatzaile lanetan, eta baita kudeaketan ere: diruzaintza, bilerak Euskal Federazioan... hori guztia egiten jarraitzen dut. Erabat barneratuta daukat, nire bizitzaren parte da.

Tira, ikusten dut gauza asko galdu ditudala bizitzan hockeyan jokatzen jarraitzeagatik. Kuadrillako jendea bazkari edo afarietara zihoan eta nik nire burua zaindu behar nuen, ezin nintzen joan, partidua nuelako hurrengo egunean. Gauza horietako batzuetan bai nabaritu dudala mugatuta nire burua, baina ez dut faltan botatzen. Uste dut ona dela dudana gogobetetzea.

Orain diote ez dudala tokirik hockeyan. Esaten didate: “Ea noiz ematen dizuten diamantezko domina eta erretiratzen zaren behingoz!”. Ni gorputzak erretiratuko nau. Ordura arte, jokatzen jarraituko dut. Noski, ezin dut 20 urteko gazte batek bezainbeste korrika egin, baina duela bost urte arte ez ninduten ezta ere atzean uzten, e! Badut nerbioa oraindik! Esaten didate suabe jokatzeke.

Hori nola egiten da? Ez dakit. Ni dena ematera noa zelaira.



Kirola

FUTBOLA



Zale ugari bertaratu ziren igoera ospatzera. Aiaraldea.eus

Herritarrekin batera ospatu du Amurrio Clubek hirugarren mailara igoera

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Herrikideen berotasuna jasozuten Amurrio Clubeko kideek iragan maiatzaren 9an. Futbol taldeak hirugarren mailan jokatu du datorren denboraldian. Apirilaren 25ean, Gasteizko Irubat taldea mendean hartuta eskuratu zuten zuri-urdinek igoera matematikoa.

Partida bizia izan zen Los Astronomos zelai gasteiztarrean jokaturakoa. Amurriorek 94. minutuan sartu zuten garaipenaren gola.

Lortutakoa ospatzeko kirolariek kamioi batean zeharkatu zituzten Amurrioko kaleak eta harrera egin zieten udaletxean. Dozenaka herritar batu ziren futbolarien segiziora. Klubeko presidentek zoragarritzat jo du denboraldia.

FUTBOLA

Etorkizuna Futbol Eskolaren udako campusean izena emateko epea ireki dute

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ekainaren 9ra arte egongo da irekita Etorkizuna Futbol Eskolaren udako campusean izena emateko epea. 2007tik 2020ra bitartean jaiotako haur eta gazteei zuzenduta egongo da, neska eta mutilentzat, eta "futboleangozatu eta lagun berriak egiteko aukera" eskainiko du, antolatzaileek azaldu dutenez.

Etorkizunako kideek nabarmendu dute ez direla pilotaren atzetik egotera mugatuko, bestelako jarduerak ere egingo baitituzte: igerilekura irteerak, jolas bereziak edota sorpresak.

Horrez gain, hamaiketako ere eskainiko dute egunero, eta parte hartzaile bakoitzak kamisetabana jasoko du opari.

Klubeko kideek nabarmendu dute "urte osoan haur eta gazte askok" praktikatzeko dutela futbola, "laguntasunean eta balioetan oinarritutako giro familiar batean".

Aitortu dute "eskola txikia" direla, baina uste dute horrek egiten duela Etorkizuna berezi. "Denok elkar ezagutzen dugu, gertuko tratua dugu eta haur bakoitza garrantzitsua da guretzat. Amurrion gaude, Reforren, eta bertan egunerolusioz entrenatzen eta hazten jarraitzen dugu", azpimarratu dute.

PILOTA

Hegoa Roiz aiararra garaile Zaramagako Pilota Txapelketa entzutetsuan



Garaikur ugari lortu dituzte Amurrio Pelotazale Klubeko kideek aurtengo denboraldian. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Zaramagako Pilota Txapelketa garailea da Hegoa Roiz aiararra. Irati Betegi gipuzkoarrarekin batera osatutako bikoteak nagusitasuna erakutsi du txapelketak iraun bitartean, eta aise lortu zuten maiatzaren 17ko finalean nagusitzea ere; 22-11 hartu zuten mendean Ozaeta-Balerdi bikotea.

Adina ez da oztopo izan Roiz gaztearentzat. Haur mailako pilotaria den arren, promesa mailan aritu da lehian, kadete eta gazte kategorietako nesken artean. Aiararrak azken urtean pilotalekuan erakutsitako maila altua medio, jaso du Zaramagako Txapelketan aritzeko gonbita.

Betegirekin osatutako bikoteak, gainera, "eraginkortasuna eta potentzia" erakutsi duela nabarmendu

dute Roizen gertukoek. Aiarar gazteak, txapela ez ezik, motxila bete irakaspen darama etxera ere, datozen denboraldietarako oso baliagarria izango duena.

Hegoa Roiz ez zen Zaramagako Txapelketan dir-dir egin zuen Aiaraldeko kirolari bakarra izan. Amurrio Pelotazale Klubeko Julen Diaz eta Aritz Gaviña finalera sailkatu ziren gazte mailan.

Arsuaga-Ugartemendi bikotearen aurka neurtu ziren partida gogorren. Amurriorek maila oso ona erakutsi zuten kantxan, baina ezin izan zioten Hernani eta Leitzako gazteen abiadurari eutsi. 22-18 galdu zuten norgehiagoka.

Uzta oparoa Amurrion

Pilotak harrobi sendoa du Amurrion. Zaramagako pilotalekutik haratago ere, garbi erakusten dute

hori aurtengo denboraldian lortutako gainerako emaitza borobilek. Izan ere, asko dira txapeldun edo txapeldunorde izatera iritsi diren kirolari amurriorek gazteak.

Modalitate guztietan erdietsi dituzte emaitza onak: esku huskan, trinketean edota larruzko paleta, goma pala eta frontenisa barnebiltzen dituen erremintan. Modalitateetan bezain besteko transbertsalitatea lortu dute ere kirol-kategorietan: senior, gazte, kadete, haur eta kimu mailetan lortu dituzte garaipenak. "Txapel, garaikur eta dominen sorta zabala, Amurrioko pilotaren etorkizun handia iragarri" egiten duela aldarrikatu dute klubeko kideek. Entrenatzaileek egingako "ahalegina eta konpromisoa" ere goraiatu dute, Iker Larrazabal esku pilotan eta Mikel Jimenez erremintan.

SASKIBALOIA

Sugarrak saskibaloia klubeko gizonezkoen senior taldeak maila igoera lortu du eta emakumezkoenak eutsi dio kategoriari



Sugarrak gizonezkoen senior taldea. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Sugarrak klubak nabarmendu nahi izan du bere bi senior taldeek denboraldiko helburuak bete dituztela. Alde batetik, etxean jokatuako Ligako azken partida galduta ere, (50-57 Gazalbide A taldearen kontra), Sugarrek Ventaclimeko jokalariek, hau da, klubeko gizonezko seniorrek, igoera lortu dute bigarren mailan aritzeko 2026/2027 denboraldian.

Klubak urte osoko esfortzuak, konpromisoak eta talde-lana go-raipatu nahi izan ditu. Sugarren ustez, kantxa barruan zein kanpoan bat egin duela erakutsi du taldeak, merezitako helburua eskuratuta.

Edonola ere, lehiaketa ez da samurra izan eta partida oso gogorak gainditu behar izan dituzte, baten bat galdu dute eta beste asko emaitza estuekin amaitu dira. Une batzuetan nagusitasun handia ere islatu dute eta, esaterako, 20. jardunaldian

35-88 gainditu zuten Pozo I. Moicar taldea.

Ametz taldearen, emakumezkoen seniorren, lorpenera ere azpimarratu nahi izan du saskibaloia klubak. Izan ere, bigarren maila erregionalari eutsi diote eta urte zaila izan dute horretarako. Hala ere, inoiz ez dute amore eman. Lana, konpromisoa eta ardura funtsezkoak izan dira iraunkortasuna lortzeko eta hori dela eta, zoriondu dute taldea denboraldia aurrera ateratzegatik.

MENDIKO TRAILA

Aiaramendi taldeak oso emaitza positiboak eskuratu ditu Mendi Lasterketetako Klub Arteko Espainiako Txapelketan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Trencacims Paüls 2026 SkyRace lasterketa 2026ko maiatzaren 2an jokatu zen Paülsen (Tarragona), Els Ports Parke Naturalaren inguruan. Han egon zen Aiaramendi taldea eta zapora ona utzi zien hitzorduak.

Izan ere, gizonezkoen taldea hirugarren sailkatu zen eta

emakumezkoena, ordea, seigarren. Klubak oso positiboki baloratu ditu emaitzak.

Gizonen taldea lehen postuan joan zen lasterketako une askotan, baina korrikalari baten errokoak eta beste biren gihar arazok azken emaitza eragina izan zuten. Hala ere, taldeak podiumeko postuei eutsi eta Espainiako Txapelketan hirugarren postua eskuratzea lortu zuen.

Emakumezkoek seigarren toki hartu zuten sailkapenean eta Aiaramendik bikaintzat jot du.

Lasterketari dagokionez, 36 kilometroko eta 2.600 metroko desnibel positiboko ibilbidea du. Teknikoa eta zorrotza izan zen, mendiko bidezidorrak, igoera gogorak, harkaitzezko gandorak eta jaitsiera teknikoak uztartu zituen.

TENISA

Ander Urkiza Euskadiko tenis txapeladuna izan da bikoteka junior kategorian



Ander Urkiza artxibo irudi batean. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Maiatza ondo hasi du Ander Urkizak, bi garaikur eskuratu baititu Laukariz Klubean jokatuako Euskadiko Tenis Txapelketan, junior kategorian, zehazki.

Bi diziplinan parte hartu du okondoarrak. Alde batetik, bikoteka osatu zuen Asier Perezekin eta, bestetik, bere kabuz lehia-

tu zen banaka. Perezekin txapela eskuratu zuen eta, ondorioz, Espainiako Tenis Txapelketan aritzeko aukera izango dute. Bana-ka, aldiz, bigarren izan zen Urkiza, Julen Gonzalezekin finala galdu ostean. Taldeka ere lorpenak izan ditu okondoarrak, EAE, Nafarroa, Kantabria eta Errioxako Torneoko lehen mailarako igoera gauzatu baitzuen martxoaren amaieran, kategoría absolutuan.



OROZKO

MAIATZAK 30 • 17:15

4 ½ko torneooa

SAN FERMIN

BIKOTEAK

DARÍO-ESKUZA VS

LARRAZABAL-MORGAETXEBARRIA

4½ JAKA VS AMIANO

Sarrerak salgai hemen: entradasfronton.com


AURRESALMENTA: Udaletxean





Herriko plaza



Izargi eta Aizane

Zorionak Izargi eta Aizane! Pilo maite zaituztegu laztanak, ez aldatu!

Familia



BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera edo 688 84 81 52 WhatsApp edo Telegram zenbakira. Ekainaren 3an argitaratuko dugu hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak


SUDOKU OSO ZAILA

		1				8		3
			9					
			4		1	7		
	6		2		8			
		8		5		2		
	9			4		1		7
		5	1		3		9	
8								1
4		6						


SUDOKU ERRAZA

		9		8	4		6	5	3
		4	2	6		5		9	7
6			5		7				
					5		7	3	
		7				3	5	6	2
3			4				8		
		8	9		6	7		4	5
4	2	7			9	1	3	8	
5	6					4			7

ANDERSEN MATEA



GREKO MATEA



Zuriek jokatzen dute eta mate egiten dute.

Amurrioko Xake Taldea

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku eta xake partiden soluzioak webgunean ikusgai: www.aiaraldea.eus/denborapasak

Zozketa



'Barruko mendiak' Maik Fallsen azken diskoa zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak



Parte hartu!

Aiaraldea Komunikabideak Maik Falls artistaren azken diskoaren bi kopia zozkatuko ditu: 'Barruko mendiak'

Zozketaren data: Maiatzak 28, 14:00etan

Herriko plaza

Boluntarioen Txokoa

Dozenaka inurriren lan ikusezin eta isilari esker egiten du aurrera Komunikabideak. Badira hamabostkariak euren auzoan banatzen dituztenak. Badira argazkiak bidali eta albisteen berri ematen dutenak. Guztiak dira ezinbestekoak. Haiei guztiei esker ona eta ahotsa ematea besterik ez dugu.



MIGUEL BRIZUELA
KOLABORATZAILEA

“NIRETZAKO EUSKARA EZ DA OZTOPO AIARALDEA KOMUNIKABIDEAK EGITEN DUENA JARRAITZEKO”

Nondik datorkizu kazetaritzarekiko zaletasuna?

15-16 urte nituenean hasi nintzen biñetak argitaratzen. Herriko egunkarietan artikulua eta komiki-tirak ere egiten nituen.

Asko idatzi eta argitaratu dut. Bilbon ikasten nuen, Iturrin jokatzeko nuen futbolearen eta biñetak marrazten nituen Hierro egunkarian, eta 200 pezeta ordaintzen zizkidaten irudiko. Txistek eta denborapasak

ere egiten nituen, zineklub batean aritu nintzen presidente, hainbat urtez izan nintzen Proel egunkari zuzendari... Aiaraldearen moduko komunikabidea zen hori, baina Castron.

Tokiko kazetaritzan aritu zara, beraz. Zer eskaini dezakete horrelako komunikabideek hedabide jeneralistagoen aurrean?

Uste dut tokiko hedabideak jeneralistak baino garrantzitsuagoak direla, tokiko kezkek urratsez urrats eta unean unean jarraitzen dituztelako, besteak iristen ez diren bitartean. Jendeak irakurri egiten ditu horrelako argitalpenak.

Jeneralistetan noizbait ateratzen da albisteen bat, baina herri mailan uneoro dagoena Aiaraldea da kasu honetan.

Aiaraldea Komunikabidean boluntario gisa aritzen zara. Azaldu ahal diguzu zer egiten duzun? Zerk motibatzen zaitu horretara?

Adin bat dudanez jada eta mundu bat atzetik, ia-ia nik eman beharko nituzke eskerrak lan hau egiten uzten zaidalako. Txikitik egiten nuena egiten jarraitzen dut, nire kezka eta grinekin, eta ekarpena egiten dut, beste batzuk iristen ez diren toki horietara iritsiz.

Artziniegara banoa, adibidez, bertako margo lehiaketako argazkiak egitea proposatzen didazue, Orozkon banago Olentzeroren kalejiran... nire adina kontuan izanda, jaten ematen didazue nire kolaborazioa onartuz, bizitzen jarraitzeko motibazioa ematen dit.

Elkarrizketa hau gazteleraz egiten ari gara. Ez dakizu euskaraz, baina horrek ez dizu ekidin Aiaraldea Komunikabideko edukiak jarraitzea.

Nik ahalegina egiten dut idatzita dagoena ulertzeko. Gaur egun inork ezin du esan ez dakiela zer jartzen duen euskaraz dagoen orri batean. Badaude itzultzaileak, edo azaldu ahal dizun norbaitek...eta, nahigabe, hitza eta esaldiak ikasten zoaz bidean. Zerbaitez hitz egiten ari direnean, gaia harrapatzen duzu eta elkarrizketa jarraitu dezakezu. Nik beti diot bi gehi bi lau dela. Niretzako euskara ez da arazoa.

Aurrekoan Josu Urrutikoetxearen liburuen aurkezpenean egon nintzen. Itzultzaile bat nuen eta aurikularrarekin banindoa hitzaldia jarraitzen.

Gauza asko ditut esku artean: hitzaldi bat alde batetik, aurkezpen bat bestetik, bihar bazkaria dut familiarekin Castron... ezin nahiz geldirik egon euskara ikasteko, baserri batera joan beharko nintzateke zentratzeko, gauza gehiegi ditut buruan. Baina errepikatzen dut: euskara ez da oztopoa niretzat.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkarte

Tirada: 10.000 ale.

Maiztasuna: Hamabostekaria

Lege gordailua: BI-1230-2013

Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus | agenda@aiaraldea.eus

| erredakzioa@aiaraldea.eus

Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus | 688 62 53 94

Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400

Telefonoak: 94 656 85 54 | 688 84 81 52

Webgunea: www.aiaraldea.eus

Erredakzioa: Maider Ramirez Martin, Aitor Aspuru Saez, Txabi Alvarado Bañares eta Aimar Gutierrez Bidarte

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Komunikabideak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI: Aitziber Alava, Josu Zabala, Gemma Corbella, Endika Arribas, Gorka Chamorro, Ane Izquierdo, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea,

Ametz Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku, Iratxe Murias.

LIZENTZIA: DOAN ETA LIBRE

Aiaraldea komunikabideko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, Aiaraldea Komunikabidea daramatzatentzat soilik.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



araba álava
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Ko



Irakurketa gunea

GURE ZIRKUA

Egilea: Ane Aierbe Mendiola eta Uxue Urdangarin Pulpon

Argitaletxea: Ikaseltar

Gure Zirkua zirku euskalduna eta bere pertsonaiak ezagutzeko jolas eta denborapasen koaderno da. Gure zirkuaren proiektua barrutik ezagutzeko aukera emango du, etxean elkarrekin jolasten den bitartean.



GARTXOT

Idazlea: Edorta Barrueta

Ilustratzailea: Asisiko Urmeneta

Adina: 10 urtetik gora

Argitaletxea: Elkar

Gartxot pelikularen adaptazio bat da. Hiru ataletan banatua dago eta irakurtzeko modu ezberdinak eskaintzen ditu. Itzaltzuko kondaira kontatuko digute, gure herriko pasarteez maitemintzeko.



JOLASGUNEAK

SUA

ZER DA?:

Arrasateko Txatxilipurdi Elkarteak argitaratutako mahai jokoa da. Taldean jolasteko (8-24 jokalaria) aproposa dena.

AZALPENA:

Pertsonai mitologikoen paperean sartzeko aukera ematen duen jolasa da. Marik gidatuko du jolasa eta hortik aurrera, Galtzagorri, Mikelats, Mateo txistu, Atarrabi.. bezalako pertsonaiek funtzio bat izango dute jolasean zehar. Jolasean sua zeinek piztuko duen, inkizioak edo herriak deskubritu beharko dute. Jolasa zein taldek irabazten duen, beraiek izango dira sua piztuko dutenak. 9-10 urtetik gorako haurrek jokatzen diren mahai joko aproposa da. Borobilean jokatzen dena.



KO
KO-
RI
KO

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Ipuinak

Ipuinen mundu magikoan sartuko gara gaurko testuan. Haurren bizitzetan ipuinek asko balio duten tresna botere-tsua dira.

Ipuinek haur eta helduen arteko harremana sendotzeko balio dute, atxikimendu seguru eta egoki bat egiteko balio dute. Ipuin kontaketa momentuan, haurrak heldua hor dagoela sentitzen du, berarentzako. Bizitzeko dugun era ero honetan, askotan haurrekin gaude benetan egon gabe, bai fisikoki ez ordea haurrak behar duen moduan. Ipuinekin al-diz, bizi eroa geldotzen da eta heldua benetan dago presente. Honek haurren behar primario bat den atxikimenduarena indartzen du.

Beste alde batetik, ipuinak balio ezberdinak transmititzeko erabili daitezke. Hala ere, balioen transmisioekin kontu handiarekin ibili behar dugu. Haurrek (adinaren arabera) ez baitituzte ipuinak helduak bezala ulertzen. Haurtzaroren kulturen, energia ezberdinekin bizi dituzte guretzako latzak diren egoera batzuk. Adibidez, "otsoa" agertzen den ipuin batzuetan, "otsoak" arazoa adierazten du, beraz, "otsoa" hiltzea, gogorra egiten zaigun arren, haurrentzako arazo horrek konponbide bat duela ekartzen dio gogora. Hori dela eta ipuinek zer eta nola transmititzen duten, haurren begiradatik egin behar da, ez helduen begiradatik.

Azkenik, ipuinekin euskara eta euskal kultura landu dezakegu. Garrantzitsua iruditzen zait, ipuinen aukeraketa egitean euskal kultura eta gure errito, mitologia, historia... kontatzen duten ipuinak hautatzea. Haurrek gure kulturen oinarriekin, terminoekin, pertsonaiekin... familiarizatua egotea ezinbestekoa iruditzen zait. Euskara gaitasunean ere eragin handia izan dezakete ipuinek. Hitz berriak ikasiko dituzte, hitzak elkartzeko moduan, esaldiak osatzen... Horregatik, haurren adinari (edo dagoen garapen etapari) erreparatu behar zaio euskararen gaitasunean eragiteko. Beticik ipuinen bidez zabaltu da kultura eta hizkuntza, haria ez dadila orain/zure etxean eten!

Ipuinak tresna magiko bezain boteretsua dira! Haurren eskura egotea, haurren garapenean ezinbestekoa. Bete etxea ipuinez (ahozkoak ere, ez bakarrik fisikoz), eta gozatu euskaraz eta familian ipuinetan murgildurik!

KAFERIK GABEKO TIRAMISUA




OSAGIAK

- 500gr Maskarpone gazta
- 4 arrautza
- 150gr Azukrea
- Kakaoa
- Esnea
- Bizkotxoak

ZELAN EGITEN DA?

1. Pausorik zailena lehenengoa da! Arraultzen goringoa eta zuringoa banatu egin behar ditugu. Bakoitza bol ezberdin batzuetan jarriz.
2. Goringoari azukrearen erdia bota eta irabiagailuarekin (elektrikoa bada errazagoa) nahasten hasi, goringoa zuritu arte. Apur bat handitu egin behar da bolumena.
3. Behin goringoa altxatuta, maskarpone gazta botako diogu eta dena ondo nahastu
4. Zuringoa harrotuko dugu geratzen zaigun azukrearekin batera. Behin harrotuta, goringo nahasketarekin elkartu eta mugimendu geldoekin dena integratu
5. Esnea eta kakaoarekin nahasketa egin eta bizkotxoak bertan busti
6. Montatzeko momentua! Bizkotxo bustiak behean jarri, gero arrautza eta gazta krema gainetik bota. Dekoratzeko kakaoa bota ahal zaio gainetik.




GauEKO dominoa

Bete itzazu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan. Batez ere gauari lotuta ageri ohi diren sei gauza sartu behar dituzu fitxetan, komeni denean:

- ilargia
- izarra
- armiarra
- planeta
- teleskopioa
- saguzarra

GauEKO

Izaki mitologiko liluragarri bat da GauEko, baina jendeak beldur handia dio, iluntasunean bizi delako eta gauaz hura baino nagusiagorik ez dagoelako. Dena esan behar bada, zehazki nolako den ez daki inork. Zure ustez, zer forma du? Marraztu ezazu laukian.



Bete itzazu sudoku honen hutsuneak GAUEKO hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (G, A, U, E, K eta O). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

O	K	G			U
		E	O		G
A		O	G	E	
	E		A		O
K	O		U		
E				O	A




Mezu gordea

Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia, eta gauarekin zerikuria duen esaera zahar bat agertuko zaizu. Horretarako, erabili hizki-marrazki alfabetoa. Bide batez, berehala asmatuko duzun esaera hori goiko marrazkiari lotuta dago, eta polit-polit margotu behar duzu.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Soluzioak



Kontra Mundutik Aiaraidera



YURI OÑATE

JAIOTERRIA
PINAR DEL RIO, 1978

BIDAIAREN XEDEA
**DUELA HAMAR URTE ETORRI
ZEN LAUDIORA BIZITZERA, ETA
TABERNA BAT KUDEATZEN DU
HERRIAN**

“KUBAN MAGO PROFESIONALA NINTZEN, HORI IZAN DA NIRE LANA BETIDANIK”

Noiz iritsi zinen Laudiora bizitzera?

2016ko irailaren 16an iritsi nintzen lehen aldiz. Bisitan etorri nintzen hiru hilabeterako, gustatu zitzaidan eta geratzea erabaki nuen

Zerk erakarri zintuen?

Dena. Ezagutzen nuen hemen gojendea, Kuban egonazena oportetan nire etxean. Laudioko jende asko ezagutzen nuen dagoeneko, eta horrek bultzati ninduen.

Nolatan joan ziren zure etxera oportetan? Nola garatu zen harreman hori Laudioarekin?

Nire arreba Laudioko baten bikotea zelako, eta lagunekin behin baino gehiagotan joan da bisitan.

Kostatu zitzaizun Laudion geratzeko erabakia hartzea?

Ez. Ikastaro batzuekin nituen eta lanean hasi ahal izan nintzen orduan.

Taberna bat kudeatzen duzu Laudion. Kuban ere ofizio bera zeneukan

Kuban magia ikuskizunak egiten nituen.

Magoa zinen?

Bai. Telebista-saio bat egiten nuen nire herrian, Pinar del Rion. Hori izan da nire lana betidanik.

Eta nolatan?

Nire aita ere magoa zelako.

Belaunaldi batetik bestera

igaro da ofizioa, beraz.

Hamar urterekin hasi nintzen, eta 16 urterekin ekin nion modu profesionalean jarduteari.

Nondik aritzen zinen?

Kabaretetan, antzokietan, diskoteketan, jatetxeetan...

Zure aitak irakatsi zizkizun trikimailuak?

Ez, nire aitak ez zidan inoiz irakatsi nahi izan. Esaten zuen errazegia zela berak erakustea. Bizitza bilatu behar izan nuen bere lagunekin eta nire kabuzikasten. Sukaldaritza ere ikasi nuen, nire pasio handia baita.

Nolakoa da mago baten bizitza Kuban?

Gustuko izan behar duzu, apur

bat gogorra delako. Oso bizitza gautarra da. Gaueko hamaiketan atera ahal nintzen lanetik eta goizeko seietan itzultzen nintzen etxera, toki batetik bestera mugitu behar nintzelako. Batzuetan lau toki ezberdinetan aritzen nintzen gau berean.

Desordutan lan egitearena ez duzu asko konpondu hemen taberna bat irekita...

Ez (barreak). Gustatzen zait jendearekin lan egitea. Magia egitean ere jendearekin harremanetan egon behar duzu. Ez dut nire burua bulego batean bakarrik lan egiten ikusten.

Nik ez nekien barran zerbitzatzen. Ikasten joan nintzen eta gustuko dut. Gustura nator lanera.

KUBA



DESKRIBAPENA

Kubako Errepublika Amerikako estatua da. Karibe itsasoan kokatuta dago, eta Antilletako uharte handiena da. 1959an Kubako Iraultza gailendu zenetik Kubako Alderdi Komunista egon da agintean. AEBk Kubaren aurka aplikatutako blokeoak erregai, elikagai eta medikamentu eskasi larria eragiten ari da.

AZALERA

110.860 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

11,2 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Gaztelania da ofiziala.

Eta hemen aritu zara noizbait mago moduan?

Batzuetan nire etxean praktikatzen dut apur bat, baina ez dut denbora askorik (barreak). Lagunekin bazkariren batean egiten dut zeozer. Agian noizbait izan dezaket espazio gehiagoko taberna bat zeinetan nire show-a prestatu eta barrako zerbitzuarekin konbinatu.

Asko aldatu da zure bizitza Kuban bizi zinetik hona?

Gogorragoa da tabernako lana, logikoki. Eta familia ere urrun daukat.

Zer ezberdintasun daude Kubako taberna giroaren eta hemengoaren artean?

Pertsonen aldetik ez dut ezberdintasunik nabarmendu sozializatzeari begira. Kulturari dagokionez badaude ezberdintasunak. Kuban gaueko giroa problematikoa da, badago borroka kultura bat hemen ezberdina dena. Horri dagokionez hemen erosoago eta lasaiago sentitzen naiz, bai.